



Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos

KOLONBIA

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA
BEHATZEKO MISIOARI BURUZKO TXOSTENA



Koordinazioa: Mundubat Fundazioa

Egilea: Carolina Zamora

Diseinua eta maketazioa: César Marcos



Aitorpena-Ez-komertziala-Partekatu lizentzia berarekin 2.5 Espainia.
Sortutako materiala hirugarrenek banatu, kopia eta erakutsi dezakete, baldin eta kredituetan egile eta jatorria erakusten badira. Ezin da inolako etekin komertzialik lortu, eta lan eratorriek jatorrizko lanaren lizentzia-baldintza berberetan egon behar dute.

Aurkibidea

Ordezkaritzaren aurkezpena	5
Testuinguru orokorra	9
Berariazko elkarrizketak	13
Elizako erakundeak	
• <i>Pastoral Soziala - Quibdoko Elizbarrutia</i>	14
Unibertsitateak / Hezkuntzako instituzioak	
• <i>Unibertsitate Klaretarra - Uniclaretiana</i>	16
Tokian tokiko eta nazio-mailako gizarte-erakundeak eta oinarri komunitarioko erakundeak	
• <i>Emakumeen Ibilbide Baketsua</i>	18
• <i>Hego Berridun Tximeleten Sarea</i>	20
• <i>Nekazaritza eta Abeltzaintzako Federazio Nazional Sindikal Batua-FENSUAGRO</i>	22
• <i>Bakearen Aldeko Mugimendu Soziala</i>	24
• <i>Herrien Biltzarra</i>	26
Giza eskubideen erakundeak / juridikoak eta politikoak	
• <i>Askatasuna Korporazio Juridikoa</i>	28
• <i>Preso Politikoezko Elkartasunerako Batzordea</i>	30
• <i>Herrien Talde Sozio Juridikoa</i>	32
• <i>Defendatzaileak Gara</i>	34
Egituraketako plataformak / sareak	
• <i>Bakerako Lankidetzako Eremua</i>	36
Nazioarteko lankidetzarako agentziak	
• <i>Kataluniako Lankidetzak Agentzia</i>	38
Ondorioak	41
Gomendioak	47
Glosarioa	49



**Ordezkaritzaren
aurkezpena**



Herri Babesarea giza eskubideen defendatzaileen babeserako udalen euskal sarea da, eta Mundubatek bultzatzen du. Txosten hau egin dugun datan, 14 udaletako ordezkari anitz ditu kide, eta, tamainari dagokionez, orekari eutsi nahi diogu, Euskadiko (EAE) Hiru Lurralde Historikoak eta osaera politikoa kontuan hartuta.¹ Sareak honako hauexen arteko ahaleginak koordinatu nahi ditu, batez ere: administrazio publikoak, tokiko erakunde txiki eta ertainak, euskal gizarte-erakundeak eta hegoalde globaleko giza eskubideen erakunde defendatzaileak. Horiek horrela, tokian tokitik sustatzen du adierazpen honetan xedatzen denaren arabera giza eskubideak defendatzen dituztenen babesa:

<https://www.ohchr.org/es/special-procedures/sr-human-rights-defenders/declaration-human-rights-defenders>

Esparru hori kontuan hartuta, txosten honetan, Kolonbiako giza eskubideen defendatzaileen egoeraren jarraipena egiteko asmoz garatu den lehenengo misioaren emaitzak azaltzen dira. Misio horretan, hain zuzen ere, lurralde eta gizarte erakundeetako liderren ahotsen bitartez giza eskubideen defendatzaileen errealitatea nolakoa den zuzenean jakin nahi zuten lau euskal udal-ordezkarik parte hartu zuten. Honako hauexek izan ziren misio horretako ordezkariak:

Nagore Gomara, Laudioko Udaleko alkateordea eta Gobernantza Feminista, Hezkuntza eta Gazteria zinegotzia; Aintzane Taberna, Pasaiaiko alkateordea eta Gizarte Ekin-tzako zinegotzia; Montserrat Jiménez, Bilarko Udaleko Berdintasun eta Ingurumeneko zinegotzia; eta Itsaso Lekuona, Hernaniko Udaleko alkateordea eta Berdintasun, Kultura Arteketasun eta Lankidetzako zinegotzia. Bestetik, Mundubateko ordezkaria Andrea López izan zen. Horrez gain, Carolina Zamora ere egon zen, misio horretarako laguntzaile, sistematizaziogile eta gidari moduan.

¹ <https://herribabesarea.eus/entidades-participantes-herri-babesarea/>

Egiaztapen-misio horretarako, Herri Babesareako ordezkariak diren 4 zinegotzik osatutako ordezkaritza 2025eko uztailaren 16tik 23ra arte egon zen Kolonbian, Mundubaten laguntzaz. Egun horietan, Chocoko departamentuko hiriburua den Quibdoko hiria, Cundinamarcako departamentuko Viotako udalerria eta Bogotako hiria bisitatu genituen. Leku bakoitzean, ordezkaritzak zuzenean entzun ahal izan ziren lurraldeko, gizarte-mugimenduetako eta giza eskubideen erakunde defendatzaileetako liderrei, eta haien aholtek zein esperientziek misioaren agenda aberastu eta agerian jarri zituzten Kolonbiak eta bertako lurraldeek honako arlo hauetan pairatzen dituzten errealitate zailak: eskubide kolektiboen defentsa eta bake iraunkor bezain jasangarriaren eraketa. Horrela, mugimendu sozial eraldatzaileetako liderrak eta kideak babestuta daudela bermatuko da, eta funtsezko eskubideak bermatuko zaizkie kolonbiarrei eta,

historiari begira, zaurgarriagoak izan diren giza taldeei; esate baterako, herrialdeko emakumeak, erkidego indigenak zein afroinordekoak, gazteak, umeak, desgaituak eta sexu zein genero dibertsitatea dutenak. Gaur egun, errealitate horietako asko ez dira nahikoa ezagunak edo ezezagunak dira herrialdetik kanpo. Hori dela eta, prozesu honen bidez nabarmendu nahi genuen garrantzia zeukan misioak. Guztira, 13 topaketa egin ziren, eta, haiei esker, ordezkaritzak herrialdean bertan giza eskubideen arloan duten egoerari buruz eskainitako ikuspegi zabal eta xehatuaren inguruko intsumo ezin baliotsuagoak behatu eta jaso zituen. Honako erakunde hauek bisitatu genituen, eta haien eragin-lurraldeetan edo “in situ” batzartu ginen haiekin:

Elizako erakundeak:

- Quibdoko Pastoral Soziala

Unibertsitateak / Hezkuntzako instituzioak:

- Unibertsitate Klaretarra (Uniclaletiana). Agerpen handia dauka Pazifiko kolonbiarrean

Tokian tokiko eta nazio-mailako gizarte-erakundeak eta oinarri komunitarioko erakundeak

- Emakumeen Ibilbide Baketsua
- Etorkizuna Eratzen ari diren Hego Berridun Tximeleten Sarea
- Nekazaritza eta Abeltzaintzako Federazio Nazionaleko Sindikal Batua - FENSUAGRO
- Bakearen Aldeko Gizarte Mugimendua
- Herrien Biltzarra

Giza eskubideen erakundeak / juridikoa eta politikoak:

- Justizia eta Askatasuna Korporazioa
- Preso Politikoko Elkartasunerako Batzordea
- Herrien Talde Juridikoa
- Defendatzaileak Gara Programa


Egituraketako plataformak / sareak:

- Bakerako Lankidetzako Eremua

Nazioarteko lankidetzarako agentziak:

- Kataluniako Lankidetzaren Agentzia





Testuinguru orokorra



2016an Kolonbiako Gobernuak eta FARC-EPetako gerrialak Bakerako Azken Hitzarmena sinatu zutenean akats instituzionalak agerian jarri zirenez, astiro-astiro eta eraginkortasunik gabe ezarri zen zenbait arlotan; esate baterako, nekazaritzaren eraldaketa, legez kontrako laborantzen ordezkapena, justizia eta konponketa. Hurrengo gobernu eskuin-muturrekoa izan zen, eta, konpromisoak behin eta berriro bete ez zituenez, gatazka armatua egituratu zen berriro.²

FARC-EPetako sektore batek hitzarmenei heldu ez zenez eta, ostean, konpromisoak bete ez zirenez, interes des-

berdinak zituzten zenbait disidentzia sortu ziren, eta, gaur egun, euren artean ari dira borrokan lurraldea kontrolatu nahian. Bi nagusiak **Estatu Nagusi Zentrala** eta **Bigarren Marketalia** dira. Estatuak FARCEk menpean zituzten eskualdeak okupatu ezin izan zituenez, lurrak legez kanpo arpilatu ziren, eta Landa Ingurunearen Eraldaketa Integrala gelditu zen. Horren ordezt, operazio militarrek bultzatu ziren, eta, narkotrafikoa zein baso-soilketa eragozteko argudiopean, nekazariak harrapatu, lekualdatu eta hil zituzten.³

Aldi berean, bakearen inguruko konpromisoa hartu zuten borrokalari ohien sektoreak jazarri zituzten, eta, gaur egun,

² NBE – Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa: 2024ko Urteko Txostena: https://www.hchr.org.co/historias_destacadas/informe-anual-del-alto-comisionado-de-las-naciones-unidas-para-los-derechos-humanos-sobre-la-situacion-en-colombia-2024/

³ Indepaz – Giza Eskubideen eta Gatazken Behatokia <https://indepaz.org.co/lideres-sociales-defensores-de-dd-hh-y-firmantes-de-acuerdo-asesinados-en-2024-y-2025/>
<https://indepaz.org.co/observatorio-de-derechos-humanos-y-conflictividades/>

500 bake-sinatzaile baino gehiago erail dituzte. Halaber, oinarri politikorik gabeko talde armatu berriak sortu ziren, eta lurraldearen kontrolagatik ari dira lehian ELNrekin. Gerrilla horrek, hain zuzen ere, sei hamarkada daramatza abian, eta eragin handi-handia dauka Venezuelako mugan. Bestetik, paramilitarismoa berregituratu zen, eta estortsioaren kontrola sendotu zuen Karibeko Kostaldean, Pazifikoan eta hiri nagusietan. Gizarte-erakundeen eta giza eskubideen erakundeen salaketan arabera, askotan horrelako egiturek estatuak berak baino botere handiagoa daukate.

2019tik 2020ra, inflexio-puntua gertatu zen: **Geldialdi Nazionala**, hau da, “gizartearen eztanda”.⁴ Milaka eta milaka manifestaldi egin ziren herrialdean, krisi sozialaren, eraldaketa atzeragarrien eta pandemiaren kudeaketa txarren ondorioz. Zapalkuntza handiaren, judizializazioen eta erailketen ondorioz, giza eskubideen erakundeek erantzuteko zuten gaitasunak gainez egin zuen. Zenbait hilabete-
ren ostean, gizartearen eztanda horrek eragina izan zuen 2022an **Gustavo Petrok** lortutako hautespenean. Gobernu berriak jaso zuen herrialdean, biderkatutako gatazka, higitutako instituzioak, txirotasun zein desberdintasun handiak eta erabat polarizatuta zegoen gizartea ziren nagusi, neurri handi batean, eskuin-muturraren narrazio mediatikoagatik, gobernu “diktadura castrochavista” dela dio-eta.

Gaur egungo gobernuak gatazkari aurre egiteko ezarritako estrategia “**Erabateko Bakea**” izan zen,⁵ eta zenbait eragile armaturekin elkarrizketarako mahaia abian jartzea zeukan helburu. ELNrekin aurrerakuntzak lortu baziren ere, mahaia porrot egin zuen su etenaldiak bete ez zirenean. Disidentziekin izandako hurbilketek ere ez dute aurrera egin. Oraindik ere, **narkotrafikoa** da arazo larrienetakoa: jatorri politikoko gerrillak horren bidez finantzatu dira, talde paramilitarren eta azken urteotan sortutako hondar-egituren antzera, proiektu politikoetatik baino hurbilago daudelako kartel kriminaletatik. Konplexutasun horrez gain, Estatu Batuek drogen aurkako politikan egiten dituzten presioak ere hartu behar dira kontuan, Kolonbiako gatazkaren norabidea baldintzatu dutelako.⁶

Garrantzitsua ere bada nabarmentzea Kolonbiako lurralde-
engatik norgehiagoka ez dela kontrol militar edo politikora

mugatzen, natura ustiatzeko interesak sakon-sakon zehar-
katzen duelako. Chocon, Catatumbo, Bolivarko hegoal-
dean edo antzeko eskualdeetan, gerrak megaproiektuen,
legez kanpoko meatzaritzaren eta ekonomia estraktiboen
aurrerapenari ireki dio atea, eta bere horretan diraute
desjabetzari eta erkidego indigenen, afrooinordekoen zein
nekazarien nahitaezko lekualdaketei esker. Hartara, gatazka
armatuak sare soziala suntsitu du, baina, horrez gain, ere-
du ekonomiko harrapakaria sendotzen ere lagundu du.
Bertan, gainera, armak eurak dira ibaiei, basoei eta biziari
berari eraso egiten dieten negozioak bermatzen dituzte-
nak.

Aldi berean, Petroren gobernuak egiturazko eraldaketak
sustatu zituen, desberdintasunaren arrazoiei eta akats ins-
tituzionalei aurka egiteko. **Nekazaritzaren eraldaketak** au-
rrerapauso historikoak eman ditu: 2025era arte, **560.000**
hektarea baino gehiago eman zaizkie **familia nekazariei**,
hau da, aurreko bi gobernuetan baino bederatzi aldiz ge-
hiago. Era berean, honako haxe ere jarri da abian: ekoi-
zpenerako proiektuak, prestakuntzak, intsumoen entrega,
teknologia eta lurren titulazioa. Osasunaren, lanaren, pen-
tsioen eta zergen arloko beste eraldaketa batzuk, ordea,
eskuina nagusi izan den kongresuan geldiarazi dira, funtzio-
nala barik ideologikoa izan den eztabaidaren erdi-erdian,
hain zuzen ere.

Egoeraren araberako egitate batek, gainera, polarizazio
hori areagotu du. **Álvaro Uribe** presidente ohiaren aurkako
epaiketa dugu hizpide, iruzur prozesalagatik eta eroske-
riagatik kondenatu dutelako lehen instantzian. Prozesu
horren ondorioz, baliteke justiziak paramilitarismoaren,
narkotrafikoaren eta elite politiko zein enpresarialen arte-
ko lotuneak harrotzea. Bien bitartean, eskuineko sektoreek
babesa berreskuratu nahi dutenez, “**Segurtasun Demokra-
tikora**” itzuli nahi dute, Uriberen gobernuan estrategia ho-
rren ondorioz giza eskubideen urraketa larriak eta gizate-
riaren aurkako krimenak gertatu baziren ere.

Egoera horretan, urriko barne-kontsultak eta presidente-
tzarako 2026ko kanpaina indarkeria politiko eta armatuko
giroan garatuko omen dira.

4 Human Rights Watch

<https://www.hrw.org/es/world-report/2024/country-chapters/colombia>

5 Giza Baliabideen Amerika Arteko Batzordea (CIDH)

https://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/2024/observaciones_preliminares_colombia_2024.pdf

6 “Babesik Gabeko” Defendatzaileak Gara Programaren 2024ko Urteko Txostena

<https://somosdefensores.org/informe-anual-2024-sin-proteccion/>



Berariazko elkarriketak





Elizako erakundeak

Quibdoko Pastoral Soziala

Quibdoko Elizbarrutiko Pastoral Sozialarekin egindako bileran, agerian jarri zen Chocoko gatazka armatua ezin latzagoa dela eta estatuaren bazterkeria historikoa, sekulako txirotasuna eta egiturazko indarkeria dituela ez-augarri bereizgarri. Aita John Milton Córdoba, Kolonbiako Quibdoko Elizbarrutiko Pastoral Sozialeko zuzendariak, gogoratu zuenez, *“historiari begira, Chocori eskubideak ukatu zaizkio”*. Bere esanetan, biodibertsitate, ur eta natura ugari-ko lurraldea da, baina gaur egun bertan gatazka armatua, megaproiektu estraktiboak eta legez kontrako ekonomiak dira nagusi. Laurogeita hamarreko hamarkadan paramilitarrak sartu zirenean, hilketa gupidagabeak, lekualdaketa jendetsuak eta egitate nabarmenak **gertatu ziren eskualdean**; esate baterako, 2002an Bojayan garatutako sarraskia. Bertan, hain zuzen ere, 119 hildako eta 5.700 lekualdatu baino gehiago egon ziren.

2016an FARCEk alde egin zutenean, aitzak azaldu egin zuen

lurraldea *“itxaropenetik etsipenera”* igaro zela, ELNk, disidentziek eta talde paramilitarrek (Kolonbiako Autodefentsa Gaitanistak (AGC), adibidez) okupatu zutelako eta honako ekintza hauen bidez gizartea kontrolatzen dutelako: konfinamenduak inposatzea, ospakizunak antolatzea edo oinarrizko zerbitzuak administratzea. Pastoraleko abokatua eta aholkulari juridikoa den Yurleicy Mosquera Abadiaren esanetan, *“jendea bere lurraldean bertan dago konfinatuta, bahituta”*. Hori dela eta, krisi humanitarioa larriagotu zen. 2022an baino ez, **183 eraildako egon ziren Quibdon**, gehienak gazteak eta emakumeak izan ziren eta sexu-indarkeriako zantzuak zituzten. Aurtan, 62 giza hilketa **egon dira** orain arte.

Erkidego indigenek eta afrooinordekoek konfinamenduak eta lekualdaketa ugariak **jasan zituzten hilabete berean**, eta gazteak **errekrutatu zituzten** haien familiei inposatutako zorren bidez. Emakumeei dagokienez, sexu-indarkeria

zein eragile armatuekiko lotune bortxatuak **pairatu zituzten**, eta 9-15 urteko neskatilen buru-hilketen gorakada asaldagarria izan zen. Horrez gain, departamentuan zeuden 3.565 migratzaile venezuelarrak egoera zaurgarrian zeuden, eta emakume askok sexu-ustiapena jasaten zuten talde armatuen kontrolpeko “txongo” izeneko lekuetan.

“Ezin da bakerik egon, hitz egiteko eta hitzarmenak lortzeko borondaterik ez badago. Horrez gain, ez da garapenik egongo, eragile armatuek lurraldea kontrolatzen duten bitartean”

Orduan ere, lider sozialak eta bakearen sinatzaileak mehatxuen eta hilketen itua ziren. *“Ama bat semearentzako babes eske etorri zen, eta hurrengo egunean itzultzeko esan zioten. Gau hartan bertan hil zuten”*, azaldu zuen apaizak, instituzioen eraginkortasunik eza eta indar publikoko sektoreen zein egitura armatu batzuen arteko adostasuna salatu nahian. Estatua inon ageri ez zenez, Pastoral Sozialak honako zeregin hauek hartu zituen bere gain: laguntasuna ematea, nazioartean agerian jartzea eta ez erasotzeko itunetako bitartekaritza. Testuinguru horretan, herriaren defendatzaile txikia izan dela esan daiteke, askotan krisiaren

larritasunaren ondorioz gainezka egin arren. Salaketak jaso behar izan ditu, biktimei lagundu behar izan die eta larrialdi humanitarioa jarri behar izan du agerian, isiltasun instituzionalaren aurrean. Erkidego askorentzat, konfiantzako eremu bakarra da, euren indarkeriak azaltzeko eta nolabait teko babesa aurkitzeko. Horiek horrela, elizak funtsezko hutsune estatala bete du, giza eskubideen defentsarako lanari eutsi dio lan pastoraletik haratago eta babesa nahiz justizia ditu helburu nagusi.

Edonola ere, kezkatuta zeudela adierazi zuten, gaur egungo bake-komisarioak, Otty Patiñok, *“ez duelako Choco behin ere bisitatu”* eta, genero-ikuspegia gaitzetsi zuenez, emakume eta neskatilentzako arrisku bereziak egin zituelako ikusezin. Aita John Miltonek modu enfatikoa adierazi zuenez, *“ezin da bakerik egon, hitz egiteko eta hitzarmenak lortzeko borondaterik ez badago. Horrez gain, ez da garapenik egongo, eragile armatuek lurraldea kontrolatzen duten bitartean”*.

Egoera larria zen oso: hilketak, lekualdaketak, errekrutamentuak eta sexu-indarkeria, baita gizarte-sarearen hauskortasuna ere. Hala ere, elizak eta gizarte-erakundeek erkidegoei erresistentzian laguntzen **jarraitu zuten**. Ezin premiazoagoa izan zen deia egitea: estatuak bake-hitzarmenak bete eta funtsezko eskubideak bermatu behar ziotuen. Izan ere, bileran bertan ohartarazi zenez, *“gaitz horri aurka egiten ez bazaio, datorrena are latzagoa eta zailagoa izango da”*.





Unibertsitateak / Hezkuntzako instituzioak

Unibertsitate Klaretarra - Uniclaretiana

Uniclaretianan egindako topaketari esker, Chocoko erradiografia eratu zen. 500.000 biztanle baino gehiagoko departamentua da, bertako erkidego gehienak afrooinordekoak zein indigenak dira eta **bertako** “krisi humanitarioa iraunkorra” da. Nahiz eta lurralde biodibertsoa eta estrategikoa den, **estatuaren utzikeriak eta egiturazko txirotasunak** bere horretan diraute: Quibdon, biztanleen %79,5en oinarritzko **premiak estali gabe daude**, familien %34k baino ez dute **edateko urik** eta langabezia %35,6koa da; **gazteena**, ordea, %44,5ekoa. Sandra Vegak, Uniclaretianako Aholkularitza Juridikoko zuzendariak, adierazi zueenez, *“Bogotan bakea hizpide duten bitartean, hildakoak eta lekualdatuak zenbatzen jarraitzen dugu hemen”*.

Indarkeria zazpi talde armaturen kontrolpean dago guxtienez, eta konfinamenduak, estortsioa eta lekualdaketak inposatzen dituzte. Quibdo bera hiri **bortitzenen artean dago**: urtebetea, 59-79 ume eta nerabe hil dituzte, bai-

ta dozenaka gazte ere. **Lidergo komunitarioak** mehatxuen eta hilketen itua direnez, honako pertzepzio hau da nagusi: *“ez dago estaturik”*. Jorge Valenciak, abokatu auzilariak eta Uniclaretianako irakasleak, honelaxe laburtu zuen egoera: *“Kolonbiak estatua baino lurralde handiagoa dauka, eta hori arazo ezin handiagoa da”*.

“Gaur egun, lurraldearen defentsa emakume indigenok hartzen dugu geure gain”

Krisi horren erdi-erdian, erkidegoek ez dute amore eman. Emakumeek zeregin nagusia hartu dute euren gain lurraldearen defentsan: 700 emakume indigenek baino gehiagok biltzarretan parte hartu zuten 2016an; eta 500ek, 2021ean. Bertan, hain zuzen ere, generoan oinarritutako indarkerien aurkako eta herrien autonomiaren aldeko agenda kolektiboak eratu ziren, emakumeen ahotsa kontuan hartuta. *“Gaur egun, lurraldearen defentsa emakume indigenok hartzen dugu geure gain”*, baieztatu zuen Embera Dovida herriko adineko emakumeak, Lucy Chamorro, Chocoko Emakume Indigenak Programako koordinatzaileak. Nolanahi ere, salatu egin zuen estatuaren laguntza asistentzialista eta aldi baterakoa izan zela berriro kasu larrietan; esate baterako, nahitaezko lekualdaketak: *“hemen, hiru hileko laguntza asistentzialista ematen digute eta kito. Gero, ez dago ezertxo ere”*.

Estraktibismoak, gainera, egoera larriagotu du: legez kanpoko meatzaritzak eta merkurioko eskubidedun subjektua den Atrato ibaia suntsitzen jarraitzen dute. Yuly Palacio Blandónek, Quibdoko Uniclaretianako Egoitzako Luzapene-ko zuzendariak, ohartarazi zuenez, *“bizkor ez bagabiltza, hemendik zenbait urtetara ez dugu jateko arrainik edukiko”*. Horrez gain, ondorio psikosozial eta espiritual larrien berri ere eman zen, gazteen buru-hilketek gora egin dute eta, erkidego indigenen esanetan, *“indarkeria espiritual”* da nagusi, lurraldearekiko harmoniaren haustura, alegia.

Egoera horretan, 109 urteko historia daukan Uniclaretiana bakerako eta erresistentziarako eragile moduan sendotu da, eta hezkuntza, justizia zein espiritualtasuna egituratu ditu jarduketara kulturalak erreskatatu eta prozesu komunitarioei eutsi dieten estrategietan. Bertako Aholkularitza Juridikoaren, Zentro Psikosoziaren eta prestakuntza-programen bidez, liderrei, erkidego indigenei eta afrooinorkoei lagundu die indarkeriako testuinguruetan konfiantza nahiz alternatibak ehuntzen. *“Unibertsitate hau erkidegoekin garatutako elkarriketaren eta hausnarketaren ondorioz sortu zenez, horrexegatik eratu du konfiantza”*, azpimarratu zuen Yuli Palaciosen.

Uniclaretianaren deia argi-argia izan zen: estatuak Bake Hitzarmenak bete behar ditu, ikuspegi bereizgarria kontuan hartzen duen agerpen instituzionala bermatu behar du, inbertsio soziala nahiz azpiegitura lehenetsi behar ditu, ikuspegi etnikoa kontuan hartzen duen osasun mentala indartu behar du eta ekoizpen-proiektu jasangarriak sendotu behar ditu. Berriro ere, nazioarteko lankidetzak funtsezkoa da prozesu komunitarioei eusteko orduan. Jorge Valenciak ondorio moduan adierazi zuenez, *“gertatzen den guztiaren aurka, arriskatzeko eta eguneroko borrokan jarraitzen saiatu gara”*.





Tokian tokiko eta nazio-mailako gizarte-erakundeak eta oinarri komunitarioko erakundeak

Emakumeen Ibilbide Baketsua

Emakumeen Ibilbide Baketsua 1996an sortu zen, mugimendu feminista nazionala da, 300 erakunde baino gehiago egituratzen ditu eta *“bakearen alde, gerraren konponbide negoziatuaren alde eta emakumeen duintasunaren alde”* lan egiten du, Marina Gallegok, Ibilbide Baketsua mugimenduaren koordinatzaile nazionalak, baieztatu zuenez. **Bakearen eraketan** daukan **eragina** erabakigarria izan da: **generoaren arloko 130 neurri sartu** zituen 2016ko Azken Hitzarmenean, **1.500 kontakizun** bidali zizkion Egiaren Batzordeari eta, gaur egun, gutxienez bertako kideen 15 kasu daude JEPn.

Putumayon, Nariñon, Caucan, Antioquian, Chocon eta antzeko eskualdeetan, **gatazka larriagotu egin denez**, egiaztatu egin da indarkeriak bere horretan dirauela FARCEk alde egin ostean. Marina Gallegok azaldu zuenez, *“FARCEk irten zirenean, disidentziak geratu ziren. Orduan, gutxi-gutxi ziren, baina orain asko eta asko dira... Triskantzak hasi*

ziren, baina ez ziren FARCEk, talde horien itua ziren liderrak baizik”. Quibdon, ordea, instituzioak ordezkatu dituzten egitura armatuen arauen menpe daude auzoak. *“Orain, emakumeak ez doaz familiako komisariara..., baina badoaz eragile armatuengana”*, adierazi zuen Claudia Palaciosek, eskualdeko koordinatzaileak.

Emakumeek indarkeria bereiziei aurre egin behar diete: sexu-indarkeriako biktimak diren 5-6 urteko neskatilak eta euren erkidegoak defendatzeagatik mehatxatutako emakume liderrak, besteak beste. Lehen tokian tokiko agintariak ziren kontseilu komunitarioek boterea galdu dute gaur egun *“araudiak ezartzen dituzten”* talde armatuen aurrean. Egoera halakoxea izan arren, **Chocoko Eskualdeko Ibilbide Baketsuak** tokian tokiko 44 erakunde egituratzen ditu, **Jakitateak Txirikordatzan Eskolak** bultzatzen ditu hamar udalerritan gutxienez eta **umeen errekrutamentua prebenitzeko ibilbide ludikoak** garatzen ditu,

“Arbasoen medikuntzak, freskatzeak eta energiak bideratzen laguntzen diguten harmonizazioak berreskuratu genituen”

baita autozainketarako planak eta “ingurune babesleak” izeneko ekoizpen-proiektuak ere.

Ibilbideak eragin politikoa ere izan du hitzarmenetan; esate baterako, Chocoko Unibertsitate Teknologikoarekin sinatutakoa, emakume lider sozialak profesionalizatzeko. Horrez gain, bete-betean parte hartu dute oroipenetan; esate

baterako, maiatzaren 2an, Bojayan, eta azaroaren 25ean. Bere ekintzan, laguntasun psikosoziala, eragin politikoa eta bakerako pedagogiak bateratzen dituzenez, aitortu egiten du zainketa kolektiboa egintza politikoa ere badela eta babes komunitariorako estrategia dela, estatua inon ageri ez denean.

Ezbeharren erdi-erdian, Ibilbideko emakumeek espiritualtasunaren eta arbasoen medikuntzan aurkitu dute erresistentzia-iturria. “Arbasoen medikuntzak, freskatzeak eta energiak bideratzen laguntzen diguten harmonizazioak berreskuratu genituen”. Haienztat, Ibilbidea “babeserako itzalkina” da, ahotsarako eta botererako eremua, alegia. Marina Gallegok ondorio moduan esan zuenez, “nik neuk aurrera egiten dut ibilbidearen inguruko irrikagatik eta emakumeekin egindako lanari diodan maitasunagatik”.





Tokian tokiko eta nazio-mailako gizarte-erakundeak eta oinarri komunitarioko erakundeak

Hego Berridun Tximeleten Sarea

Herri Babesarearen misioaren esparruan, Buenaventurako Hego Berridun Tximeleten Sareko Bibiana Peñaranda liderrak salaketa irmoa aurkeztu zuen Kolonbiako emakume beltzek, indigenek eta etnikoek pairatzen dituzten indarkeriei buruz. *“Diodana hemendikxe esaten dut, beltza, herritarra, komunitarioa, feminista eta arrazakeriaren aurkakoa den emakumearen bihotzetik, alegia”,* baieztatu zuen, eztabaida instituzionalek eta feministek arrazakeriak eta gerrak zeharkatutako lurraldeetako aho-tsak alde batera uzten dituztela azpimarratu nahian.

Nahiz eta Kolonbian lege-aurrerapenak egon diren, Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruzko 1257 Legea, adibidez, Bibianak nabarmendu zuenez, *“ez du emakume beltzek eta indigenek bizitako indarkeria arrazistei buruz hitz egiten”*. Bere esanetan, arrazakeriak eguneroko bizitza zeharkatzen du; esate baterako, lana lortzeko ilea lisatzea beharrezkoa izatea eta bake-prozesuetan baztertuak izatea, besteak

beste. Gatazka armatuan, sexu-indarkeriak osagai arraziala eduki du: *“lehenengo eta behin, ‘txakur beltza’ edo ‘PK beltza’ esaten zieten. Gainera, beti, hasieran larruazalaren kolorea begiratzen zieten, eta, gero, bortxatu egiten zituzten”, “...eragile armatuak ilea lisatu behar zuela esaten zion, bortxatzen zuenean ez zuelako gustuko bere ilea ukitzea, edo, bestela, bost aldiz bainatzeko agintzen zion beltz-usaina gustuko ez zuelako edo askoz gehiago jatera behartzen zuten beltzen ipurdia trinko egotea zuelako gustuko”, azaldu*

“Emakume mestizoek badute beirazko sabaia hausterik, baina geuri zementuzko sabaia jartzen digute, eta, bertatik, ez dugu zerua ikusterik”

zuen, eraso horien ezaugarri bereizgarria **estigma kolonial** edo **hipersexualizatzaileak** direla nabarmendu nahian.

Era berean, Bibianak **feminismo hegemonikoa** jarri zuen kolokan, **egiturazko arrazakeria** sakon-sakon ez onartzeagatik: *“emakume mestizoek badute beirazko sabaia hausterik, baina geuri zementuzko sabaia jartzen digute, eta, bertatik, ez dugu zerua ikusterik”*. Hori dela eta, defendatu egin zuen **zeinen premiazkoa den arrazakeriaren aurkako ikuspegia ezartzea**, bereizkeriak zenbatzeko eta, horrez gain, estatuan nahiz gizarte-mugimenduetan **pribilegio arrazialei** eta **hierarkia historikoei** aurre egiteko.

Buenaventurako egoera dinamika horien erakusgarri krus dela da: **nahitaezko desagerpenak**, **konfinamenduak**, familia-buruak diren emakumeentzako **estortsioak** eta lesbianen zein **LGBTIQ+** bizilagunen aurkako **indarkeria “zentzatzaileak”**. Azaldutako kasu batean adierazten denez, eragile armatu batek emakume saltzaile bati egin zion eraso, negozioa suntsitu zion eta, bere bota baginaren gainean jarri ondoren, zera ohartarazi zion: *“hau gizonentzat da”*. Jarduketa horien ondorioz, **suizidio-saialdiek** gora egin dute; esate baterako, euren auzoetan jazarpena pairatzen zuten 18 gizon gayen taldearena. Tximeleten Sarearen ustez, indarkeria horiek arrazakeriarekin zein homofobiare-

kin gurutzatzen direnez, emakumeentzako eta sexu-dibertsitateentzako arriskua larriagotzen da.

Testuinguru horretan, emakumeek **autobabeserako eta sendaketa komunitariorako** estrategiak ehundu dituzte: emakumeen artean konfiantzako *“sakramentu politikoa”* den **berriketaldia**, laguntzarako zirkuluak, **erritu afrooinordekoak** eta **arbasoen medikuntza**. Izan ere, estigmatizatuta dagoen arren, bere horretan dirau lurraldeetan. *“Indarkeria arrazistak aipatzea, agerian jartzea eta lehen pertsonan azaltzea duintasun-egintza da”*, azpimarratu zuen Bibianak.

Azkenik, salatu egin zuen emakumeak **Buenaventurako elkarrizketa-mahaietatik kanpo uzten** dituztela. Bertan, gizonak dira nagusi, erasoaren erantzuleak diren eragile armatuak barne. *“Hor eserita dauden gizon asko bortxatzaileak dira”*, ohartarazi zuen. Gainera, behin eta berriro esan zuen ez dela **benetako bakerik** egongo, emakumeak **subjektu politikoak** direla aitortzen ez bada eta **arrazakeriaren aurkako ikuspegiak** agenda feminista, instituzional eta komunitarioak zeharkatzen ez baditu. *“Izan ere, arrazakeriaren aurkako ikuspegiak haien bihotzak mugitzen ditu, haien bizitza mugitzen du, elkarrizketa mugitzen du. Horrela, bertatik ere elkartu ahal izango gara. Horixe da garrantzitsuena”*.



Argazkia:Hego Berridun Tximeleten Sarea



Tokian tokiko eta nazio-mailako gizarte-erakundeak eta oinarri komunitarioko erakundeak

Nekazaritza eta Abeltzaintzako Federazio Nazional Sindikal Batua FENSUAGRO

Herri Babesarearen misioak FENSUAGRO bisitatu zuen oroimenez eta mistikaz betetako egintzan. Bertan, bere historian zehar erakunde nekazari honek jasandako indarkeriako eta jazarpen politikoko ehunka biktima gogoratu zituzten. Omenaldi sinbolikoaren erdi-erdian, liderrek nekazarien mugimenduaren aurrerapauso eta erronken balantzea partekatu zuten **aukeraz** beteta omen zegoen egoera nazionalen, gobernu aurrerakoia iristean, nahiz eta artean ere **arriskuak larriak** ziren. *“2022an, aukeren unean geundela konturatu ginen. Hala ere, testuinguru horretara iritsi ahal izateko, lehenago gauza asko gertatu zirela esan behar dugu, mobilizazio iraunkorra eta bideak urratu zituen bake-prozesua, batez ere”*, adierazi zuen Nury Martínezek, FENSUAGROKO presidentek.

Nekazaritzaren eraldaketa integrala gutxieneko baldintza moduan proposatu zen, egoera konpontzeko eta nekazariak duintzeko. *“Konpontzea Kolonbian nekazaritzaren*

eraldaketa integrala egitea da. Konpontzea nekazariak eskubidedun subjektuak direla aitortzea da”, baieztatu zuen Nuryk. Nolanahi ere, ohartarazi egin zuten narkotrafikoari konfiskatutako onibarrak ematen direnean errepresalia armatuak pairatzeko arriskuan daudela erkidegoak. Indarkeriak bere horretan dirau **krudelkeriaz**: 2022tik, Araucan, 900 lagun baino gehiago erail dituzte; Catatumbon, 50.000 lekualdaketa baino gehiago gertatu dira; eta, Cauca nahiz Putumayon, 20 bat talde armatu ari dira borrokan lurraldea kontrolatu nahian. *“Lekualdaketa ez da gelditu, eta talde armatuek enpanaden edo ahuakatearen salmenta ere badeute kontrolpean”*, azaldu zuen David Martínezek, FENSUAGROKO Giza Eskubideetako arduradunak.

FENSUAGROK behin eta berriro esan duenez, nekazarien etxe, elkargune eta prestakuntza-eremu asko suntsitu zituzten gatazka armatuaren esparruan, eta leku horiek berreskuratzea eskatzen duten nekazaritza-eraldaketa

parte ere bada. Lurra ez da laborantza-lurraldea bakarrik: irakasteko, antolatze eta prozesu komunitarioak indartzeko eremua da. Hori dela eta, nekazarien eskaera jabetza-tituluetatik haratago doa, eta, gehienbat, herrialde-eredua eratzea du helburu, bertan landa-ingurune erkidegoak euren autodeterminazioa eta gobernantza dituzten subjektu politikoak direla aitortu dadin.

Borrokan ari dira, nekazarien aitortza politiko eta juridikoa lortu nahi dutelako. Hamarkadetan, indigenek eta erkidego beltzek aurrerapen konstituzionalak erdiesten zituzten bitartean, nekazariak ikusiezinak ziren, eta “beste batzuk” kategorian azaltzen ziren erroldetan. Bazterkeria horren ondorioz, lege-ekintzak jarri ziren abian, eta, azkenean, Gorte Konstituzionalak epaia eman zuen 2018an. Bertan, hain zuzen ere, nekazariak babes konstituzional bereziko sub-

“Instituzioek ez dute oraindik ulertu zer adierazi nahi duen subjektu nekazariak aitortzeak”

jektuak zirela ezarri zen. Aurrekari horren ostean eta Nazio Batuen Erakundeak Nekazarien Eskubideen Adierazpena onartu zuenean, 2022an aurrerapauso historikoa lortu zen 01 Legegintzako Egintzaren bidez, bertan modu formalean aitortu zelako nekazariak eskubidedun subjektuak zirela. Edonola ere, Nuryk zioenez, “instituzioek ez dute oraindik ulertu zer adierazi nahi duen subjektu nekazariak aitortzeak”. Dena dela, oztopo burokratikoek, bazterkeriek eta lurraldeetan dauden benetako bermeen faltak bere horretan dira.

FENSUAGRO biktima kolektiboa dela egiaztatu da Bakerako Jurisdikzio Bereziaren (JEP) 08 Kasuan, eta, gutxienez, 50 desagerpen dokumentatu dira, errepresalien beldur askoz gehiago isilpean geratu diren arren.

Emakumeen ahotsak leku nagusia bete zuten: Luz Dary Molinak, Hezkuntza eta Prestakuntza Sindikaleko idazkari nazionalak, **feminizidioen naturalizazioa** salatu zuen, baita landa-ingurune emakumeek jasandako indarkeria politikoa ere: “*modu sotilean ankerra den gerran gaude murgilduta, eta, bertan, emakumeok naturalizatzen diren feminizidioen tasa handia jasan dugu. Emakumeon aurkako indarkeria politikoa tantaz tanta azaltzen da, eta arima zulatzen digu*”.

Ezbeharrak ezbehar, FENSUAGROK bermeen mahaiaik bultzatu ditu Araucan, Metan eta Cundinamarcan, eragin handia lortu du Kongresuan eta nazioarteko laguntasunarekiko lotuneak ditu. Nolanahi ere, konturatu egin dira komunikabide handi-handiek polarizazioa elikatzen dutela eta haien borrokei zilegitasuna kentzen dietela: “*komunikabide batzuek erkidegoei pozoia txertatzen diete leku guztietatik: gorrotoa, errieta, fobia*”, esan zuen David Martínezek.

“Gizakiak gara, eta guretzat dena da mingarria, baina ihintza eta ongarria behar ditugu, ezbeharren erdi-erdian loratzen jarraitu ahal izateko”

Erakundearen mezua argia da oso: bakea lortzeko, **borondate politikoa** eduki behar da, nekazariak aitortu behar dira eta konponbide negoziatua eman behar zaio gatazkari. Herrien erresilientzia gogoratu nahian, Luz Dary Molinak ondorio moduan aipatu zuenez, “*gizakiak gara, eta guretzat dena da mingarria, baina ihintza eta ongarria behar ditugu, ezbeharren erdi-erdian loratzen jarraitu ahal izateko*”.



Tokian tokiko eta nazio-mailako gizarte-erakundeak eta oinarri komunitarioko erakundeak

Bakearen Aldeko Mugimendu Soziala

"Pandemiak desberdintasun sakona agerian jartzea lortu zuen, baita herri-manifestaldia ere, gazteena, hain zuzen ere"

Bakearen Aldeko Mugimendu Sozialak, giza eskubideen defendatzailea eta bake-komisario ohia den Danilo Ruedaren ordezkari moduan, behar besteko eremua eskaini zuen, Herri Babesarearen misioarekin Kolonbiako egoera politiko zein sozialari eta bake-egoerari buruz hausnartzeko. Azterketak COVID-19aren pandemia izan zuen abiapuntu, bertan desberdintasun sakonak jarri zirelako

agerian, baita talde armatuek estatuak bertan behera utzitako lurraldeetako kontrol sozialean eta elikagaien hornikuntzan duten zeregina ere: *"pandemiak desberdintasun sakona agerian jartzea lortu zuen, baita herri-manifestaldia ere, gazteena, hain zuzen ere"*.

Pandemiak krisi soziala jarri zuen agerian, eta gazteen ahotsa ozen entzun zen berehala. Horrelaxe sortu zen 2021eko **eztanda soziala**, eta aurrekaririk gabeko **mobilizazio soziala** izan zen, desberdintasunaren ikusle pasiboak izaten jarraitzea onartu ez zuten gazteen lidergopean. Topaketan esanenez, mugimendu hori gutxietsi egin zen: *"gaur egungo presidenteak ez zuen ikusi eztanda soziala adierazgarria zenik, eta hori ez zettorren bat egiten ziren proposamen gehienekin"*. Edonola ere, **mobilizazio jendetsuak**, kalean adierazitako sormenak eta zapalkuntzaren aurrean erakutsitako ausardiak egiaztatu egin zuten ados ez zegoen eta **bere patua eraldatzeko** prest zegoen herrialde gaztea zela.

Hala ere, ziklo itxaropentsuaren hasiera izango omen zena frustrazio-iturri bihurtu da. Eztanda sozialean parte hartu zuten gazteak hilketetako, mehatxuetako eta amarru judizialeko biktimak dira oraindik. *“Gaur egungo eztanda sozialean, ostean eraildako gazteak, mehatxatutako gazteak eta herrialdetik alde egin behar izan duten gazteak daude”*. Haien eskaera juridiko eta sozialei erantzuteko politika argirik ez dagoenez, **borroka sozialen aitortzaren** sinboloa izan ahal izan zena **irekitako zauri** bihurtu zen. Hori dela eta, gaur egun, **terroristak balira bezala tratatzen dituzte** gazte horiek.

Aldaketa politiko horretako egitate adierazgarrienetakoa 2022ko hauteskundeetan sabotaje armaturik ez egotea izan zen.

“Oso herrialde dibertsoa gara, ekosistema asko ditugu. Berbera gertatzen da gure indarkerietan. Beraz, diagnostikoa egiten jakin beharra dago”

Aldi berean, talde armatuei buruzko narrazio ofiziala desbi-deratu da. Hasieran, **Hitzarmen Nazional Barneratzaileari** buruz hitz egiten bazen ere, gaur egun honako ikuspegi hau da nagusi: *“talde guztiak narkotrafikatzaileak dira”*. Ikuspegi horren ondorioz, diskurtso militaristak berpiztu dira *“irabazteko menderatu egin beharra dago”* logikapean, nahiz eta bere porrotaren nabaritasun historikoa dagoen. *“Menderatu eta irabazi’ tesia gezurra da. Begiratu zer gertatzen den gaur egun talde disidenteak berriro egituratzeko eta berriro armatzeko prozesuarekin”*. Ikuspegi horrek, ordea,

ez du eskualdeko **motibazioen**, egituren eta dinamiken **aniztasuna** ezagutzen. *“Oso herrialde dibertsoa gara, ekosistema asko ditugu. Berbera gertatzen da gure indarkerietan. Beraz, diagnostikoa egiten jakin beharra dago”*, ohartarazi zuen Danilo Ruedak.

Horrez gain, **gobernuarekiko mesfidantza**, erakunde sozialen zatiketa eta **giza eskubideak urratzen dituzten jarduketan** itzulera dira nagusi: *“gaur egun, judizioz kanpoko ekuzioak daude, gaur egun estrategia dago... eta bizi izan duguna baino askoz larriagoa da”*.

Egoera horrelakoxea izan arren, **erresistentzia komunitarioko** esperientziak nabarmendu ziren; esate baterako, sexu-indarkeria geldiarazteko asmoz komandante paramilitar bati aurre egin zion emakumearen kasua: *“ardo beltza prestatuko dizut zuk ni bortxatu eta erail baino lehen, eta hitz egingo dugu”*. Duintasunez betetako keinu horiek egiaztatu egiten dute erkidegoek badakitela nola egin bakea. Alde horretatik, **Bakearen Aldeko Mugimendu Soziala** azpimarratu zen. Izan ere, kanpoko finantzaketarik gabeko ekimena da, eta herri-sektoreak egituratzen ditu, gerraren aurrean legegintzako eta etikaren arloko alternatibak proposatzeko.

Bakea ezin da **interes korporatibo eta geopolitikoetatik** deslotu. Sektore estrategikoetan atzerriko potentziak eta multinazionalak egotea eta Gorgona uhartea bezalako lurraldeak militarizatzea ez dator bat *“naturarekiko bakearen”* ideiarekin. Balantzea zaila da: irekiera **politikoan emandako aurrerapausoak**, baina **bete gabeko aginduen-gatiko frustrazioa** eta **logika belikora itzultzeko arriskua** ere bai. Danilo Ruedaren ondorioa argia izan zen: *“erkidegoak dira bakea egiten dutenak”*. Hartara, gogoratu egin zuen indarkerien aniztasuna eta eguneroko pedagogia lurraldeetatik bertatik aitortzea **bake iraunkorrerantzko** benetako bidea dela.



Tokian tokiko eta nazio-mailako gizarte-erakundeak eta oinarri komunitarioko erakundeak

Herrien Biltzarra

Herrien Biltzarreko Bake Taldeko kidea den Olimpo Cárdenasekin egindako topaketari esker, agerian jarri zen nolako **erronka sakonei** aurre egin behar dien Kolonbiak **demokraziaren, bakearen eta lurraldeen defentsaren** arloan. Azterketak egiturazko egiaztapena izan zuen abiapuntu: *“Kolonbia sozietate feudala da oraindik”*. Lur emankorrenen %90 biztanleen %1en esku baino ez daudenez, munduko desberdintasun handieneko hirugarren gizartea da herrialdea, bizilagunen %39 baino gehiago txi-roak dira-eta. Adierazi zutenez, *“horrek argi eta garbi uzten du boterea gauza bat dela; eta gobernua, beste bat”*.

2016ko Bake Hitzarmenaren sinatzaileen aurkako eta lider sozialen aurkako **indarkeria** krisi horren adierazgarri da. 500 sinatzaile baino gehiago eta mila lider baino gehiago erail dituzte azken zortzi urteotan. Beraz, esan gabe doa estatuak hitzartutakoa ezartzen dela bermatzeko inolako gaitasunik ez duela eta zor historikoa daukala erkidegoekin.

“Erabateko Bakearen” balantzean, argi-itzalak egon dira. Batetik, **Partaidetzarako Batzorde Nazionala** sortu da, zenbait sektoretako 81 ordezkari ditu eta, bertan, 10.000 lagun baino gehiago daude inplikatur: *“10.000tik gora lagunekin lan egin zen, bakea eratzeko asmoz gizarte osoak herrialde-proposamenen eraketan parte hartuko zuela adierazten zuen proposamena diseinatzeko”*. Bakearen eraketa kolektibo hori, ordea, ez zen fusilen desmuntaketara bakarrik mugatu, indarkeriaren egiturazko arrazoen inguruko erantzun zehatzak ere landu zirelako: **desberdintasun sozialak, eredu ekonomiko estraktibista eta erkidegoen zein lurraldeen bazterketa historikoa**.

Edonola ere, prozesua hautsi egin zenez, bertan behera geratu zen, zoritxarrez. ELNrekin 28 hitzarmen sinatu ondoren, azkena partaidetzarako ereduaren diseinuari buruzkoa zela kontuan hartuta, elkarriketa-prozesua eten egin zen, eta ez gobernua ez Bakerako goi-komisarioak ez zuten argi

eta garbi azaldu zergatik. *“Gobernuak sekulakoa egin zuen maketak izeneko bake-ereduak aurreratzen hasi zelako eta elkarrizketarako mahaien zatiketa baino ez zirelako”*. Frustrazioa oso agerikoa zen, zatiketa horrek gaur egungo gobernuaren bandera garrantzitsuenetakoa ahuldu zuelako eta, horren ondorioz, indarkeria areagotu zelako lurraldeetan, disidentziak ugaritzean eta gerra larriagotzean. Gainera, hori aztertuz gero, eragile armatuak narkotrafikatzaileen eta terroristen talde hutsak direla dioen narrazio ofiziala argudio eztabaidagarria da, gatazkaren **sustrai historiko, politiko eta sozialak** ikusezin egiten ditu-eta.

Bolivarko hegoaldean eta antzeko eskualdeetan, erkidegoek **naturaren defentsarako bizi-planak** eratu dituzte, aurretiaz galdetu gabe ibaien, mendien zein ekosistemen kalterako proiektuak inposatzen dituen eredu ekonomiko estraktibistaren aldean. **Paramilitarismoaren hedapenak** egoera larriagotu duenez, **sexu-indarkeria, gizakien trafi-**

koa, umeen lana eta desagerpenak sortu dira. Hori dela eta, sare soziala *“deskonposatu”* da, desjabetza sustatu da eta, askotan, gainera, historiari begira horrelako egiturak finantzatu dituzten sektore ekonomikoen eta **enpresa multinazionalen** interesekin dauka zerikusia.

Halaber, gaur egungo gobernuaren mugei buruz hausnartu zen. Olimporen iritziz, gainera, ez da ezkertiarra, *“gobernu liberal aurrerakoa baizik, eta kapitalismoa modernizatzea proposatu zuen”*. 2016ko Hitzarmenaren ezarpenean eta beste eragile armatu batzuekiko negoziaketetan aurrera egin ez denez, eskuineko zenbait sektorek **“segurtasun demokratikoaren”** narrazioa bultzatu dute berriro.

“Aldaketak ez datoz estatuetatik, herrietatik baizik”



Hala eta guztiz ere, berretsi egin zen **bakearen eraketa** ezin dela gobernuen menpe egon, herriaren irmotasunaren menpe baizik. *“Aldaketak ez datoz estatuetatik, herrietatik baizik”*. Alde horretatik, oraindik ere, lurralde-batzarrek, prestakuntza politikorako prozesuak eta bizi-planak erresistentziarako eta proposamenerako zutabeak dira, gerraren eta estraktibismoaren aurrean. Olimpok ondorio moduan aipatu zuenez, *“Kolonbiako erara egindako bake-ereduaren eraketaren aldeko apustua”* egin beharra dago, eta, bertan, heriotzaren egunerokotasunaren erdi-erdian ere eutsi beharko zaio biziari.



Giza eskubideen erakundeak / juridikoak eta politikoak

Askatasuna Korporazio Juridikoa

Askatasuna Korporazio Juridikoko zuzendaria den Adriana Arboledarekin izandako elkarrizketari esker, misioak Antioquiako egoera ezagutu zuen, eta *“herrialdeko gatazkaren zati bat garatzen den lekuetakoa”* omen da. Urabatik Behe Caucarantz eta ipar-ekialderantz, indarkeriak bere horretan dirau gerrillen, paramilitarren, narko-trafikoaren eta legez kontrako meatzaritzaren interesen ondorioz.

2016ko Bake Hitzarmenaren ondorioz nolabaiteko epealdi lasaia sortu bazen ere, *“2018. urtearen erdialdean erabat agerikoa zen gatazka guztiek gora egin zutela eta, horren ondorioz, Kolonbiako gaur egungo egoera humanitarioa larri-larria zela”*. Adrianaren esanetan, bakeak ez zuen berez porrot egin, hitzartutakoa bete ez zelako eta borondate politikorik ez zegoelako baizik. Aurrerakuntza berriak lortu arren, biktimen eskubideen aitortza, ikuspegi etnikoa zein genero-ikuspegia, esaterako, hitzarmenak ez zuen inoiz ko-

lokan jarri *“ez eredu ekonomikoa, ez eredu politikoa, ezta segurtasun-eredua ere”*. Hori dela eta, bere egiturazko eragina mugatu zen.

2018ko bira politikoak, gainera, are gehiago ahuldu zuen prozesua: *“Iván Duquek irabazi zuen, bake-hitzarmena txiki-txiki egitea zeukan helburu eta, funtsean, lortu egin zuela uste dut”*. Horren ondorioz, disidentziak sortu ziren berriro, eta indarkeria modu larrian areagotu zen: *“2017tik gaur arte, urteko eraildako liderren kopurua ez da 300etik jaitsi... eta gehienak indigenak, lurren eskatzaileak eta ingurumeneko liderrak dira”*. Horrez gain, *“500 bake-sinatzailerik hil dituzte 2017. urteaz geroztik”*.

2020an eta 2021ean egindako Herrien Auzitegi Iraunkorrak bakearen aurkako krimenak dokumentatu zituen, salduke-ria barne, eta adiskidantzaaren alde egin zutenen aurkako eraso sistematikoak zeudela baieztatu zuen. Gaur egungo

gobernuak zenbait neurri sustatu ditu; esate baterako, nekazariak eskubidedun subjektuak direla aitortzea, Escazuko Hitzarmena sinatzea eta Berdintasunerako Ministerioa sortzea. Dena dela, “*erabateko bakearen*” estrategia kritikatzeko da argitasun politiko eta juridikorik ez daukalako eta, horrez gain, gizarte-mugimendua baztertzen duelako: “*nork ezagutzen du lurraldeko errealitatea bertan bizi direnek baino hobeto?*”.

“herrialde honek iparralde globalak nahi eta behar duen guztia dauka: urrea, litioa, ura, biodibertsitatea eta kokapen estrategikoa”

Horri erantzuteko asmoz, erkidegoek zenbait ekimen sortu dituzte; esate baterako, Antioquiako Bakerako Mahai Humanitarioa. Bertan, hain zuzen ere, gutxieneko 13 eskakizun humanitario zehaztu ziren, eta, besteak beste, umeak errekrutatzeke debekua eta emakumeen sexu-ustiape-

naren debekua aipatzen dira bertan. Edonola ere, gaur egungo indarkeria nazioarteko interesen adierazgarri ere bada: “*herrialde honek iparralde globalak nahi eta behar duen guztia dauka: urrea, litioa, ura, biodibertsitatea eta kokapen estrategikoa*”. Adrianaren esanetan, hogeita hamar urtean, honako hauxe izan da estrategia: “*lurraldeko jendea botatzea, lurra eskuratzeko eta baliabide naturalak eskuratzeko*”.

Gatazkak txarrera egin du, gazteak talde armatuetan sartzen hasi dira-eta, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren jakitun izan gabe. Hori dela eta, zibilen aurkako ekintzak are basatiagoak dira. Horrez gain, nazioarteko lankidetzak atzera egin du arrisku handiko testuinguruetan: “*indarkeria larriagotzen denean... nazioarteko erakundeek eta GKE-ek alde egiten dute oro har, bermerik ez dagoelako*”, eta, horren ondorioz, are arrisku handiagoan daude erkidegoak.

Ondorio nagusia argia izan da: bakeak ez du porrot egin, hau da, “*ezin da esan ondo joan ez denik, baina ez da bete*”. Beraz, honako hauxe da erronka: hitzartutakoa betetzea, liderrak zein erkidegoak babestea eta mugimendu sozialek bakearen eraketan funtsezko zeregina daukatela aitortzea.



Argazkia: Askatasuna Korporazio Juridikoa



Giza eskubideen erakundeak / juridikoak eta politikoak

Preso Politikoen Elkartasunerako Batzordea

Preso Politikoen Elkartasunerako Batzordeak (CSPP) 50 urtetik gorako ibilbidea dauka, eta berretsi egiten da giza eskubideen defentsarako erakunde historikotakoa dela Kolonbian. Óscar Ramírezek, Batzordeko presidentea, azaldu zuenez, erakundea 1973an sortu zen zapalkuntza latzaren erdi-erdian, eta, harrezkero, biktimei lagundu die, espetxeak behatu ditu eta urraketak dokumentatu ditu, *“gure konpromisoa betidanik izan delako zigorgabetasunari aurre egitea eta duintasuna defendatzea”*.

Herri Babesarearen misioan bertan, Batzordeak azaldu zuenez, gaur egun gatazka armatua larriagotzeko prozesua, indarkeria politikoa eta protesta sozialaren kriminalizazioa dira nagusi. 2019tik 2021era, eztanda sozialean, honako hauxe erregistratu zen: manifestarien aurkako 6.000 eraso baino gehiago, terrorismoa bezalako neurrigabeko karguengatik 600 prozesu judizial eta, gutxienez, 60 giza hilketa, gau bakar batean Bogotan gertatutako 13ak barne.

2019an eraildako Dilan Cruzen kasua zigorgabe dago oraindik sei urteren ostean. Horrez gain, *“babesagatiko”* lekualdaketak direlakoan egindako 35.000 atxiloteta arbitrario baino gehiago eta 2021ean gertatutako begietako 120 lesio zigorrak gabeko zapalkuntza-ereduen erakusgarri dira: diziplinazko ikerketen %80 inguru artxibatu dituzte.

Lider sozialen aurkako indarkeriak ere bere horretan dira. 2025ean baino ez, 81 hilketa egon dira. Gainera, 2016. urteaz geroztik, 1.377 kasu ikertu diren arren, 227 zigor baino ez dira ezarri, eta 20 baino ez dira egile intelektualen aurkakoak izan. 2024an, Herriaren Defendatzaileak berehalakotasunaren inguruko 27 alerta goiztiar igorri zituen, eta gehienak Batzordearen agerpen aktiboa duten eskualdeetan egin ziren. María Paula Tovarrek, CSPPko Bakerako Bermeen Programako ikertzaileak, ohartarazi zuenez, *“hori zigorgabetasun-ereduaren adierazgarri denez, indarkeriak bere horretan dira, eta ugaltzen ari dira”*.

Berriro ere, gatazka armatuak txarrera egin du: Nazio Batuen Erakundeak jakinarazi duenez, urtebetean 30.000 lekualdaketa baino gehiago eta konfinatutako 75.000 lagun egon dira, eta eraginak larriak izan dira errekrutatutako adingabeen eta emakumeen artean. CSPPko Bakerako Bermeen Programako ikertzailea den Maricel Sandovalen esanetan, *“emakumeek erabaki-guneetan jasaten duten indarkeria eskerga lortu duten jabekuntzaren parekoa da, eta gero eta handiagoa da”*. Horrez gain, Pazifikokoan, batez ere, bereizkeria arrazial eta etnikoaren osagaia ahaltsua denez, are arrisku larriagoak sortzen dira herri indigena eta afroinordekoentzat.

Kolonbiako egoera oso larria da: egiturazko zigorgabetasuna, protesta sozialaren zapalkuntza zein kriminalizazioa, lider sozialen hilketa eta gatazka armatuaren berregituraketa. Óscar Ramírezek azpimarratu zuenez, *“erabateko bakearen gaia gobernuaren ahulezia handietakoa da, bai... Kalkuluen arabera, zortzi inguru gatazka armatu handi daude Kolonbian”*. Testuinguru horren aurrean, Batzordeak behin eta berriro dio oroimena, eragina eta lankidetzapeko auzia eusteko eta eraldatzeko tresnak direla, baina ohartarazi egiten du borondate politikoa eta nazio-mailako nahiz nazioarteko elkartasuna behar direla, lorpen horiek paper errea izan ez daitezen..

“Borondate politikorik ez badago, ezarpena labur geratzen da, eta eraldaketak ez dira lurraldeetara iristen”

2016ko Bake Hitzarmenean ikuspegi etnikoa eta genero-ikuspegia kontuan hartzen dituzten babes-neurriak zehaztu ziren arren, ez dira behar bezala ezarri, inondik inora ez. Gaur egungo gobernuak bermeen politika integrala bultzatu du, baina oraindik ez dago hori ofizial egiteko dekreturik. 2023an, Gorte Konstituzionalak defendatzaileen babesaren *“egungo egoera inkonstituzionala dela”* adierazi zuen, eta 32 agindu igorri zituen, baina CSPPko presidenteordea den Daniela Rodríguezek zioenez, *“borondate politikorik ez badago, ezarpena labur geratzen da, eta eraldaketak ez dira lurraldeetara iristen”*.

CSPPk judizioz kanpoko exekuzioetako eta nahitaezko desagertutako 1.200 biktimari baino gehiagori laguntzen die JEPren aurrean, *“positibo faltsuen”*⁷ makrokasuetan Indar Publikoaren zein paramilitarren arteko aliantzetan, batez ere. Nolanahi ere, ia-ia zortzi urteren ostean, oraindik ere lehenengo epai irmoa eman ez denez, frustrazioa sortzen da biktimen artean.

⁷ Gerrako baja moduan aurkeztutako 6.402 zibil babesgabe erail dituzte.

<https://www.comisiondelaverdad.co/los-falsos-positivos>



Giza eskubideen erakundeak / juridikoak eta politikoak

Herrien Talde Sozio Juridikoa

Herrien Talde Sozio Juridikoa giza eskubideen defendatzaileen erakunde moduan sendotu da, eta, orain dela gutxi eratu bada ere, bere sustaiak iraupen luzeko ibilbidearen adierazgarri dira. Bere sortzailea den Gloria Silvak baieztatu zuenez, “gaztetan hasi ginen giza eskubideak defendatzen”, eta, gaur egun, erkidego nekazariei, askatasunaz gabetutako emakumeei, judizializatutako bizilagunei eta estigmatizatutako giza talde sozialei laguntzen diete, estatuaren zapalkuntzak eta gatazka armatuak zeharkatutako testuinguruetan **duintasunaren** alde egindako apustuaren bidez.

Bere lanean, funtsezko giltzarria izan da protesta sozialaren esparruan **judizializatutako gazteen defentsa**, baina 2021eko ezta-daren ostean, batez ere. Ehunka manifestari askatasunaz gabetu zituzten neurrigabeko karguen pean, terrorismoa ere leporatu zieten-eta. “*Hori ikaragarria izan zen, gazteei terrorismoko delituak egotzi zizkietelako pro-*

testaldia egiteagatik”, azaldu zuen Gloriak. **Protestaren kriminalizazio sistematikoa** horrek agerian utzi zuen justizia penala erabiltzen zela zapalkuntzarako tresna moduan eta, sare soziala hautsi zuenez, familietan nahiz erkidegoetan ere izan zuela eragina.

Halaber, Taldeak **espetxe-sistemaren krisia** ere jartzen du agerian, Gorte Konstituzionalak berak ere sistema horren “*egungo egoera inkonstituzionala*” dela adierazi duela kontuan hartuta. Honako hauxe dokumentatu dute, hain zuzen ere: tortura, arduragabekeria medikoa, eskubideen ukapen sistematikoa eta desberdintasunak indartzen dituen eredu zigortzailea. “*Kolonbiako politika kriminala gero eta askoz zigortzaileagoa da*”, salatu dute. Askatasunaz gabetutako emakumeek **patriarkatu suminduari** aurre egin behar diote: espetxeratzean, laguntzarako sareak galtzen dituzte, eta bakar-bakarrik geratzen dira urruneko hazieran. Gizonak bisitatzeko ilarak luzeagoak dira, eta emakumeenak, ordea,



umez nahiz adineko emakumez beteta daude. *“Zigorra bete behar duen emakume baten bizitzatik desagertzen diren lehenengoak gizonak dira”*, azaldu zuen Silvak. Egoera are latzagoa da sexu eta genero dibertsitatea dutenentzat eta barnekoen zein zaindarien erasoetako biktimentzat. Gainera, diskurtso ofizialak genero-ikuspegia aipatzen badu ere, erabat desagertzen da emakumeak akusatu eta auzipetzen dituztenean.

“Bide militarra ez da sekula konponbidea izan, guztiz kontrakoa baizik, beti-beti arazoa larriagotu duelako”

Lurraldeko lanari dagokionez, Santanderren, Santanderreko iparraldean, Cesarren eta Catatumbon, batez ere, eragile armatuek eta militarizazioan oinarritutako politika estatalak setiatutako erkidego nekazariei laguntzen diete. *“Bide militarra ez da sekula konponbidea izan, guztiz kontrakoa baizik, beti-beti arazoa larriagotu duelako”*, baieztatu dute. Taldeak lider nekazarien judizializazioak eta lurraldea kontrolatzeko eta desjabetzeko proiektuen jarraipena salatu ditu, gaur egun paramilitarismo-modu berrien bidez adierazten direla kontuan hartuta. *“Proiektu moduan, oraindik ere berbera dira”*.

Horrez gain, erakundeak oroimenerako eta ingurumenaren defentsarako prozesuak bultzatzen ditu. Santanderreko erkidegoetan, ekosistemak babesteko berezko arauak sortzen laguntzen dute, eta elikaduraren burujabetzari buruzko eztabaidak irekitzen dituzte, kokazaletasunaren aurrean. Lurraldearen defentsa naturaren eta biziera guztien defentsa ere bada.

Arlo politikoan, Taldeak gaur egungo gobernuaren *“erabateko bidea”* jartzen du kolokan, eskuinari bidea urratu ahal izango lioketen akatsak nabarmentzen ditu eta ohartarazi egiten du zeinen arriskutsua den El Salvadorko segurtasun-eredua inportatzea, megaespetxeetan eta espetxeratze jendetsuetan oinarrituta dagoela kontuan hartuta: *“El Salvadorko esperientzia Kolonbian kalkatuko dela uste dugu”*. Egoera horren aurrean, azpimarratu egiten dute agindu abolizionistak aldarrikatu behar direla eta justizia konpontzailerako ereduak ezarri behar direla, *“espetxeak arazo sozialak konpontzen dituela”* pentsarazten duen ilusioaren aldean.

Herrien Talde Sozio Juridikoak honako hauexek uztartzen ditu uste sendo etiko argiarekin: defentsa juridikoa, laguntasun komunitarioa, nazioarteko salaketa eta oroimenaren eraketa: *“giza eskubideak urratzen direnean, urratu egiten dira, eta guk esku hartu egiten dugu”*. Hona hemen bere apustua: ahots irmoz eta bihotz kolektiboz, eustea eta zigortu, zatitu eta isilarazten duen eredurako alternatibak proposatzea, beste justizia bat eta beste gizarte bat eratu daitezkeela berresteko.



Giza eskubideen erakundeak / juridikoak eta politikoak

Defendatzaileak Gara

Defendatzaileak Gara Programak 27 urteko ibilbidea dauka, gizarte zibilaren ekimen moduan sendotu da eta Kolonbian giza eskubideak defendatzen dituztenen bizia nahiz lana babestea dauka xede. Astrid Torres koordinatzaileak nabarmendu zuenez, *“arriskuan daudenean Kolonbian eskubideak defendatzen dituztenen bizia babestea izan da bere indarretakoa”*. Horretarako, laguntasuna, babeserako estrategiak eta nazio-mailako nahiz nazioarteko eragina sustatzen dituzte.

Funtsezko lorpena izan da erakundearekin eta estatuarekin ituntzeko mintegian parte hartzea. Bertan, bi urteko elkarriketaren ostean, erabaki egin zen premiazkoa zela babeserako eredia eraldatzea: banakako eskema erreaktibotik prebentziorako eskema integralera igarotzea, erkidego indigenen, afroinordekoen, nekazarien eta hiritarren autobabes kolektiboa aitortzeko.

Programak hiru ardatz lantzen ditu: erasoei buruzko informazio-sistema, honako hauexek dokumentatzeko eta aztertzeko: hilketak, atentatuak, mehatxuak, xaxaketak, bahiketak, desagerpenak eta indarkeria digital edo kontrol sozialerako indarkeria berriak. Guztira, **13 eraso-mota eta arriskuan dauden 11 lidergo-mota** antzeman dira: indigenak, afroak, nekazariak, ingurumenekoak, emakumeenak, LGBTIQ+, gazteenak, sindikatuenak, biktimenak, komunitarioak, babes-arlokoak eta pedagogikoak. Bestetik, honako arlo hauetako planak ere badaude: lurraldeetako autobabesa zein elkarriketa humanitarioa, eragin politikoa eta komunikazioa; baita kanpainak ere, **20 urtean eraildako 1.500 defendatzailearen** oroimena duintzen duen *“Historia Bukatugabeak”*, esaterako.

2024an, 707 eraso erregistratu ziren, hau da, 2023an baino %9 gutxiago, baina indarkeriek gora egin zuten; esate baterako, %200era iritsitako bahiketak, konfinamenduak eta

lekualdaketak. Giza hilketak zertxobait jaitsi ziren, 2023an 168 egon zirelako; eta, 2024an, 157, baina ez estatuaren ekintzagatik, eragile armatuen estrategiaren aldetengatik baizik. **2025eko lehenengo hiruhilekoan**, ordea, krisia larriagotu egin zen: **43 defendatzaile hil zituzten**, hau da, 2024an epealdi berean hildakoak baino %43 gehiago.

Emakumeek eta sexu-dibertsitateek arrisku bereiziei aurre egiten diete. Oro har, hilketek behera egin bazuten ere, **emakume** biktimen proportzioa egonkorra izan zen, eta nortasun dibertsodun bizilagunek, ordea, erailak izateko aukera handiagoa daukate. Horrez gain, **feminizidioen** krisi larria ere aipatu beharra dago: **745 kasu 2024an; eta 362, 2025eko maiatzera arte**. Gainera, era neurrigabea dute eragina emakume lider indigenen, nekazarien, afroinordekoen eta bilatzaileen artean.

Herriaren Defendatzaileak 90 alerta goiztiar igorri dituzten bi urteotan, baina bere gomendioak nekez gauzatzen dira. Berehalakotasunaren inguruko alertak nagusi direnez, agerikoa da **estatuak prebenitzeko inolako gaitasunik ez daukala**. Defendatzaileen aurkako hilketen %15ek baino gutxiagok lortzen dute epai judiziala, eta, horren ondorioz, **zigorgabetasuna** elikatzen da. 2023an, Gorte Konstituzionalak defendatzaileen babesaren *“egungo egoera inkonstituzionala”* zela adierazi zuen, eta, **18 neurri** agindu zituen arren, haien betearazpena *“ertaina-txikia”* izan da.

Gatazka berregituratu egin denez, arriskuak larriagotu dira: **FARCetako disidentziak, AGC, ELN, krimen antolatua** eta estatuko eragileak lehian ari dira lurraldea kontrolatu nahian. Astrid Torresen ustetan, *“orain ez da hain erraza karakterizatzea... edozein taldek helburu militar bihurtzen dituelako defendatzaileak”*. Horrez gain, ohartarazi zuten, **gizarte-erakundeak ordeztzen ari dira** baliabide ugari dituzten eragile armatuek sortutako egituren bidez, **lidergo historikoak neutralizatzeko eta zilegitasun komunitarioa lortzeko asmoz**.

Astrid Torresen esanetan, *“eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeria berregiteko aukera ematen duen faktorea da zigorgabetasuna”*, eta, alde horretatik, haien zat garrantzitsua da Gorte Konstituzionalak emandako **T-546/2023 Epaia**, bertan defendatzaileen aurkako arrisku sistematiko eta orokorra aitortzen delako, *“egungo egoera inkonstituzionala”* dela adieraztean. Epai horren arabera,

estatuak derrigorrean bete beharreko hamazortzi neurri judizial agindu zirenez, **erantzukizunak eskatzeko tresna ahaltsua** da, nahiz eta ezarpenaren lehenengo urtean arrerakuntzak txiki-txikiak izan diren. Defendatzaileak Gara Programak Idazkaritza Tekniko moduan parte hartzen du **Jarraipen Batzordean**, eta, bertan adierazitakoaren arabera, gobernuaren betearazpena *“ertaina-txikia”* denez, agerikoa da **presioa eta borondate politikoa** handiagoak izan behar direla.

“Liderren aurkako erasoen eta gatazka armatuaren arteko lotuneak bere horretan dirau”

Horren ondorioz, Kolonbian giza eskubideak defendatzea oso-oso arriskutsua da oraindik, honako hauexek bere horretan dirautelako: **zigorgabetasuna, genero-indarkeria, erkidego dibertsoen aurkako mehatxuak eta eragile armatuen berregituraketa**. Talde Pedagogikoko Winston Gallegok baieztatu zuenez, *“liderren aurkako erasoen eta gatazka armatuaren arteko lotuneak bere horretan dirau”*. Nolanahi ere, Defendatzaileak Gara babesaren eta erresistentziaren arloko zutabea da oraindik, eta, egiaztatu egin zuten, ezbeharrak ezbehar, oroimena, pedagogia eta elkartasuna funtsezkoak dira oraindik, **duintasuna eta bizia defendatzeko orduan**.





Egituraketako plataformak / sareak

Bakerako Lankidetzako Eremua

Bakerako Lankidetzako Eremua (ECP) honako herrialde hauetako nazioarteko 45 erakundek osatzen dute: Norvegia, Suitza, Suedia, Belgika, Espainia, Italia, Frantzia eta AEB, eta funtsezko plataforma da Kolonbiako erkidegoei laguntzeko orduan, 2016ko **Bake Hitzarmena** sinatu zenetik. Bere lurralde-ekintza sei eskualdetan dago antolatuta: Buenaventura, Cauca, Catatumbo, Ekialdeko Lautadak, Erdialdeko Magdalena eta Tumaco, Oxfamek administratutako **poltsa bateratuko eredupean**. Hori dela eta, nazio-mailako eta nazioarteko eragileekin egituratutako tokiko agendei eusten zaie. Bertako idazkari teknikoa den Adriana Solerrek adierazi zuenez, ECP *“apurka-apurka mutatu da zortzi urteotan, eta lurraldeetatik bertatik bakea eratzea du xede nagusi”*.

Erronka nagusietakoa nazioarteko fondoek murrizketa da, zenbait agentzia joan egin direlako, lankidetzak suediarra, esaterako, eta eskuineko sektoreek aurrera egin dutelako

Europar. Hori dela eta, *“gaitasun biderkatzailea”* duten proiektu estrategikoei eman behar zaie lehentasuna. Aldi berean, **gatazka bera gogortu egin denez, gobernantza kriminaleko logika** berriak sortu dira, eta, bertan, talde armatuek estatua ordeztzen dute, zerbitzu komunitarioak hornitzen dituztenak direlako. Horren ondorioz, **nazioarteko laguntasunerako arriskuak** areagotu dira: misioak atxiki dituzte, ekipamenduak kendu dizkiete eta, batzuetan, Buenaventuran, adibidez, ez diete zuzenean bertan sartzen utzi.

Oso zenbaki kezagarriak egoera humanitarioaren erakusgarri dira: 17 hilabeteen, lider sozialen hilketek gora egin dute, eragile armatuak hauteskunde-prozesuak baldintzatzen ari dira eta, horretarako, erkidego osoak ere lekualdatu dituzte haien botoa kontrolatzeko. Mesfidantza demokratikoa gero eta sakonagoa da zenbait eskualdetan; esate baterako, Catatumbon, Araucan, Guaviaren eta Cho-

con, historiari begira baztertuta egon direla eta bertan estatutaren agerpena ahula dela kontuan hartuta.

Testuingurua txarra bada ere, topaketak tokian tokiko erresistentzien erresilientzia nabarmendu zuen: zaintza indigenak, gazte-taldeak, ingurumenekoak, emakumeen sareak eta LGTBQ+ prozesuak **botere komunitarioaren eredu berriak** dira. Adrianak adibide esanguratsua nabarmendu zuen: emakume beltzen talde batek 11 departamentutako lidergoak egituratzen ditu honako agindupean: *“emakume beltz guztiok gaude erresistentzian”*. Prozesu horiek agerian uzten dute bakea ez dela armen isiltasunera mugatzen, ikuspen eta proposamen komunitarioen bidez eraiki behar delako herrialdea.

“Uste dugu ez gaudela bakar-bakarrik lan egiten, sarea ehuntzen ari garela baizik”

Horren ondorioz, murrizketen, indarkeriaren eta ziurgabetasun politikoaren erdi-erdian itxaropena bertan behera ez uzteko konpromisoa berretsi zuen ECPk. Haien esanetan, funtsezkoa da nazioarteko egituraketa indartzea, bikoiztasunak saihestea eta herriei erresistentzian laguntzea. Topaketan bertan adierazi zenez, *“uste dugu ez gaudela bakar-bakarrik lan egiten, sarea ehuntzen ari garela baizik”*.



Argazkia: Bakerako Lankidetzako Eremua



Nazioarteko lankidetzarako agentziak

Kataluniako Lankidetza Agentzia

Kataluniako Lankidetza Agentziak Kolonbian daukan misioak agerian utzi zuen zeinen premiazkoa den nazioarteko lankidetzarako lotuneak indartzea egiturazko desberdintasunak eta lurraldearen arabera aldatzen den indarkeria iraunkorra ezaugarri bereizgarri dituen herrialdean. Antoni Vicenssek, Kataluniako Gobernuak Andeetako

“Geure konpromisoa hartu dugu, jarduketa guztietan genero-ikuspegia kontuan hartu dadin, eskakizun formal moduan nahiz emakumeek bakearen eraketan daukaten zeregin nagusia aitortzen duen apustu politiko moduan”

Estatuetan duen ordezkariak, adierazi zuenez, *“lurraldera zoazenean, Bogotako burbuilatik irteten zara”*, Buenaventurako, Tumacoko edo Caucako iparraldeko errealitateak era askotakoak direlako, legez kontrako ekonomiek, eragile armatuek eta proiektu estraktiboek zeharkatzen dituztelako eta eragin berezia daukatelako **biodibertsitate handiko** lekuetan.

Agentziak **apustu** feministari eman dio lehentasuna bere Plan Zuzentzailean, honako honexetarako erabiliko dituztelako baliabideak: emakume gazteen prozesuak, umeen defentsa nahitaezko errekrutamenduaren aurrean eta giza eskubideen defendatzaileen babesa. Kolonbian daukan Naya Parra ordezkariaren esanetan, *“geure konpromisoa hartu dugu, jarduketa guztietan genero-ikuspegia kontuan hartu dadin, eskakizun formal moduan nahiz emakumeek bakearen eraketan daukaten zeregin nagusia aitortzen duen apustu politiko moduan”*.

Azpimarratu egin zen tokian tokiko erakundeen lana ezinbestekoa dela, baina laguntasun politiko eta solidarioa eman behar zaiela, euren erresistentziari eutsi diezaioten. Nazioarteko lankidetzaren erronka nagusien artean, hainbat eragile egituratuta ez daudela nabarmendu beharra dago: udalak, GKEak, unibertsitateak, agentziak... Hori dela eta, proiektuen bisore georreferentziatua diseinatu dute, gardentasuna zein sinergiak hobetzeko eta bikoiztasunak ekiditeko.

Bestetik, enpresa-sektorea lankidetzarekin lotzea ere badute erronka. Ohartarazi zuten, *“lurraldean aukerarik ez badago, errazagoa da legez kanpoko trafikoa sartzea”*. Alde horretatik, kooperatibismoa, ekoizpen-klusterrak eta ekonomia solidarioa sustatzen dira, gerlari ohiei berriro gizarteratzen laguntzeko eta landa-inguruneak erkidegoak indartzeko.

Klimaren eta ingurumenaren arloko justizia funtsezko beste ardatz bat izan zen, aitortu egiten delako lurraren eta ondasun erkideen defentsa lider sozialak jazartzeko arrazoi nagusietakoa dela gaur egun. Lankidetzak eredu agroekologikoak, elikaduraren burujabetza eta megaproiektu estraktiboak aurre egiteko babes bultzatu ditzake.

Kataluniako Lankidetzaren Agentziak bere konpromisoa berretsi zuen, indarkeria txikiagotzen duten gobernuen aurrean ahots kritiko zein solidarioari eusteko eta bere begirada eskualdera zabaltzeko, Ekuadorrerantz, batez ere, bertan segurtasunaren degradazioak Kolonbiako gatazkarerikiko ontzi komunikatuak islatzen dituelako.





Ondorioak



Ondorioak

Herri Babesarearen misioak baieztatu egin zuen “gatazkaren osteko” kontakizun ofizialaren eta lurraldeko errealitatearen arteko **arrakala** dagoela. Ahots kolektibo batek laburbildu zuenez, *“ezin da esan”* Bake Hitzarmena⁸ *“ondo joan ez denik, baina ez da bete”*. Horregatik, beraz, **premiatzkoa da konpromisoei berriro heltzea eta liderren zein erkidegoen babesa bermatzea**.

Landa-lanak agerian utzi du **Kolonia ugari** daudela eta era askotako dinamika etnikoak, nekazariak eta hiritarrak daudela. Izan ere, biodibertsitate handiko lurraldeak gerrarako eta legez kontrako ekonomietarako gune estrategikoak ere badira aldi berean. Hori dela eta, testuingurua kontuan hartzen duten eta lurralde bakoitzera egokituta dauden politikak ezarri behar dira.

Narriadura humanitarioa egunez egun aurrera egiten duen krisia da: Quibdon, 183 hilketa egon ziren 2024an; eta 62, aurten, orain arte, baita errekrutamenduak, konfinamenduak eta lekualdaketak ere. Tokian tokiko erakundeek estatuari eskatu diote 2016an hitzartutakoa bete dezala, indarkeriaren hedapena geldiarazteko. Nazio Batuen esanetan, urtebetean, 30.000 lekualdatu baino gehiago eta 75.000 konfinatu egon dira, eskolak itxi dituzte eta adingabe gehiago errekrutatu dituzte. Herriaren Defendatzaileak 27 alerta goiztiar igorri zituen 2024an erakunde laguntzaileen agerpen aktiboa dagoen lekue-tan.⁹

Era berean, protestaren zapalkuntzarako eta kriminalizaziorako ereduak bere horretan diraude, 2021eko eztanda sozialean egiaztatu ahal izan zen bezala. *“Eskuin kolonbiarrak protesta eraldatzaileagoa izan zitekeela ulertu zuenez, ankerrago jokatzen dute”*.

⁸ 2016ko Bakerako Azken Hitzarmena:

<https://www.jep.gov.co/Documents/Acuerdo%20Final/Acuerdo%20Final%20Firmado.pdf>

⁹ Herriaren Defendatzaileen alerta goiztiarrak: prebentziorako mekanismo honek estatuari ematen dio eskualde jakin batean bizi diren biztanle zibilentzako berehalako arriskuen berri:

<https://alertastempranas.defensoria.gov.co/>

Giza eskubideen defendatzaileak

Kolonbian, giza eskubideen defentsa arrisku iraunkorreko zeregina da oraindik, eta bizia galdu dezakezu horregatik. Herri Babesarearen misioan gizarte eta lurralde arloko erakundeek azaldutako eta bildutako kontakizunek egoera kezkagarriaren berri eman dute. Bertan, hain zuzen ere, bere horretan dirau lider sozialen, landa-inguruneen erkidegoen eta bake-sinatzaileen aurkako indarkeriak, eta larriagotu egiten da, gatazka eta lurraldea kontrolpean daukaten eragile armatuak etengabe berregituratzen ari direlako.

Defendatzaileak Gara Programaren txostenaren arabera, 2024an defendatzaileen aurkako 707 eraso erregistratu ziren, 157 exekuzio barne. Beraz, exekuzioak gutxitu dira, 2023an 168 egon ziren-eta. Beste indarkeria batzuek, ordea, gora egin dute; bahiketak, esaterako, %200 baino gehiago hazi direlako. Horrez gain, konfinamenduak eta lekualdaketak ere egon dira. Oiraintsuagoko egoera are kezkagarriagoa da: 2025eko lehenengo hiruhilekoan baino ez, 43 defendatzaile hil zituzten, hau da, aurreko urteko epealdi berean baino %43 gehiago. 2025ean, orain arte, 81 lider sozial erail dituzte. Egoera horrez gain, eredu historikoa ere hartu beharra dago kontuan: 2017tik, urtero, 300 lider baino gehiago hiltzen dituzte, eta, gehienak indigenak, nekazariak, lur-eskatzaileak eta ingurumenaren defendatzaileak dira. Hala ere, Bake Hitzarmenaren 500 sinatzaile baino gehiago ere hil dituztenez, agerikoa da estatuak zor sakona duela herrialdean biziaren eta bakearen eraketaren aldeko apustua egin dutenekin.

Protesta sozialaren kriminalizazioak eta zapalkuntzak egoera hori larriagotzen dute. 2019tik 2021era, 6.000 eraso baino gehiago dokumentatu ziren eztanda sozialean, gehienak euren protesta-eskubidea zerabilten manifestarien aurkakoak izan ziren eta, haietako askotan, sexu-indarkeriako eta generoan oinarritutako indarkeriako ereduak ezarri ziren. Horrez gain, ehunka gaztek judizializazio arbitrarioei, lege-oinarririk gabeko prozesuei eta atxiloteta jendetsuei aurre egin behar dietenez, estigmatizazioa eta jendaurreko laidoa pairatzen dituzte. Hori guztia, gainera, zigorgabetasun-giroan gertatzen da: Preso Politikoeikiko Elkartasunerako Batzordeak azaldu duenez, liderren aurkako erasoengatik irekitako 1.377 prozesu judizialeetatik, 227 prozesutan baino ez da zigorra ezarri, eta 20 baino ez dira erantzule intelektualen kontrakoak izan. Justiziarik ez dagoenez, erkidegoei beldurra sorrarazten dien mezua igortzen da: salatzea arrisku handiagoa izan daiteke.

Ezbeharrak ezbehar, biztanle zibilak, mugimendu sozialak eta erakunde komunitarioak ez dira gelditu, ezta herrialdea eraldatzeko duten itxaropena ere. Misio honetan bertan bildutako kontakizunak bat datoz esatean erkidegoak bete-betean ahalegintzen direla euren lurraldeetan geratzen eta, bertatik, bizirik mantentzen dutela euren borroken oroimena. Bien bitartean, bakearen eraketa bultzatzen dute herrietatik bertatik. Mahai humanitarioak, bizi-plan komunitarioak eta babes kolektiborako proposamenak erresistentzia baketsuaren adierazpide zehatzak dira, eta, egiaztatu egiten dute, estatuaren bermeak nahikoak ez badira ere, oraindik ere indar sozialak benetan uste duela badagoela bakea lortzerik, betiere, erkidegoetako jendeari entzuten badiote.

Lurra eta lurraldea defendatzen dituzten biktimak

Naturaren defentsa giza eskubideen aldeko borrokako ertz handienetakoa da gaur egun. Edonola ere, ura, basoak, ibaiak eta biodibertsitatea babesten dituztenek lider sozial eta komunitarioek baino arrisku handiagoari aurre egin behar diote askotan. Kolonbiako biodibertsitatea handia denez eta lurraldeek ekosistema ugariak dituztenez, interes estraktibisten eta legez kontrako ekonomien lehiapeko ingurua da gaur egun, lurralde indigenak, afrooinordekoak eta nekazariak oztipoa direlako haien negozioentzat, nazioz haraindikoak edo nazionalak, legezkoak edo legez kontrakoak diren kontuan hartu gabe. Hori dela eta, lurraldearen eta naturaren defendatzaileak diren emakumeak eta gizonak jazarritako subjektu zaurgarriak dira gaur egun.

Urterik urte, ingurumeneko liderrak hilketetako eta mehatxuetako biktima nagusien artean daude. Gizarte-erakundeek egindako txostenen arabera, ingurumeneko defendatzaileak, baina legez kontrako meatzaritzaren, **petrolio-ustiapenaren edo megaproiektuen** aurka daudenak, batez ere, etengabe xaxatu eta estigmatizatzen dituzte zenbait kanpainaren bidez, eta, bertan, **garapenaren etsaiak** direla leporatzen diete. Narrazio horrek haien borrokak desitxuratzen ditu, haien helburua tokian tokiko erkidegoen bizia-ri eusten dioten ondasun erkideak babestea denean eta, haiei esker, planetaren oreka lortzen denean.

Bildutako lekukotasunen arabera, ingurumenaren defentsak lotura estua dauka lurraldearen defentsarekin eta herrien iraunkortasun kulturalarekin. Erkidego etnikoek eta afrooinordekoek gogoratu dutenez, *“lurraren eta lurraldearen aldeko borroka zaintzeko modua ere bada”*, ibaia edo mendia zaintzen denean etorkizuneko belaunaldien bizia bermatzen da-eta. Emakume beltzek eta indigenek ohartarazi dutenez, legez kanpoko meatzaritzak eta kimikoengatiko kutsadurak ekosistemak suntsitzen dituzte, baina, horrez gain, eragin zuzena daukate haien gorputzetan eta osasunean. Horren ondorioz, politika publikoentzat ikusezinak diren gaixotasunak sortzen dira. **Hori dela eta, ingurumenaren defentsa ezin da deslotu ez genero-ikuspegitik ez ikuspegi etnikotik: natura babesteko, historiari begira lurraldeok bizileku izan dituztenen eta zaindu dituztenen bizia ere babestu beharra dago.** Horrez gain, guztiok giro osasungarrian bizitzeko daukagun eskubidea da.

Bestetik, behinolako erkidegoek egiaztatu egin dute agintea ezartzeko eta lurraldearen babesa bermatzeko beste modu batzuk daudela, hau da, armarik gabe eta hitzaren nahiz antolakuntza kolektiboaren bidez. Gainera, irakatsi egiten dute natura ez dela ez baliabidea ez ustiatu beharreko salgaia, harreman espiritual eta politikoa ehuntzen duen izaki bizia baizik. **Natura defendatzean, biziera guztiak defendatzen dira**, baina arbasoen jarduketan oroimena ere bai, herriek lurrarekin, espiritualtasunarekin eta euren burujabetzarekin duten lotuneari dagokionez.

Zeregin hori euren gain hartzen dutenen aurkako indarkeria izugarria da. Proiektu estraktibistek lotune historikoa izan dute gehienbat paramilitarrak ziren egiturekin. Indarkeria hori, hain zuzen ere, interes ekonomiko eta estraktibistekin dago lotuta: erkidego afrooinordekoak, indigenak eta nekazariak lekualdatu egiten dituzte, meatzaritzako, agroindustriako eta narkotrafikoko proiektuek aurrera egin dezaten. Askatasuna Korporazio Juridikoak adierazi zuenez, azken hogeita hamar urteetan, *“lurrarekin eta ba-*

liabide naturalekin geratzeko asmoz lurraldeko jendea botatzea” izan da gerrarako estrategia. Hartara, ibaiak, basoak eta mendiak babesten dituztenek eragile armatuei ez ezik, haien lana hil ala biziko erronka bihurtzen duen **garapen-ereduari** ere aurre egin behar diote.

Gizarte eta ingurumen arloko mugimenduek esan dutenez, Kolonbian ez da bakerik lortuko, ingurumen-arloko justiziarik ez badago. Natura defendatzen dutenak babestea beharrezko lehentasun politikoa izan behar da. Ezinbestekoa da biziera guztien jagole moduan egin dituzten ekarpenak aitortzea. Nazioarteko lankidetzak, estatuak eta gizarteak bermatu egin behar dute haien ahotsak entzun egiten direla eta ekoizpen agroekologikorako, elikaduraren burujabetzarako zein lurraldeen zainketarako dituzten proposamenak babesa jasotzen dutela eta indartu egiten direla. Izan ere, giza eskubideak defendatzen direnean, lurraldeak ere defendatzen dira: *“ibaia defendatzen dugunean, geure seme-alaben bizia defendatzen dugu”*. Helburua geure etxe erkidea defendatzea denez, bermatu egiten da biziak aurrera jarraituko duela mundu zabalean, tokian tokiko erkidegoentzat nahiz gizateria osoarentzat. Naturaren defendatzaileak aitortzea eta babestea ezinbesteko urratsa da, bakea eratzean lurra, ura eta bertan bizi diren herriak kontuan hartu daitezen.

Giza eskubideen defendatzaileen hilketa sistematikoak, zigorgabetasun iraunkorrak, gatazka armatuaren berregituraketak eta estatuaren bermerik ezak agerian uzten dute giza eskubideak defendatzen direnean oraindik ere bizia arriskatzen dela Kolonbian.

Emakumeen eskubideen urraketak

Pazifiko kolonbiarrean kokatutako Buenaventurako Hego Berridun Tximeleten Sareak irmotasunez jartzen du mahai gainean pairatutako genero-indarkeriek oso lotura nabaria dutela egiturazko arrazakeriarekin. Gainera, salatu egiten dute sexu-indarkeria pairatu baino lehen emakumeek irainak jasotzen dituztela euren larruazalaren koloreagatik. Beraz, agerikoa da emakumeak izateagatik ez ezik, emakume beltzak izateagatik ere jasaten dituztela erasoak. Errealitate horren arabera, gatazka armatuko sexu-indarkeria ezin da bakarrik ulertu genero-indarkeria moduan: gizatasuna kentzea eta isilaraztea helburu duen indarkeria arrazializatua ere bada.

Genero-ikuspegia eta arrazakeriaren aurkako ikuspegia atzeraezinak dira. 2024an, 745 feminizidio egon ziren; eta, 2025eko maiatzera arte, 362. Emakume lider indigenen, afrooinordekoen, nekazarien eta bilatzailleen arrisku bereizgarria iraunkorra da. Buenaventuran, azpimarratu egin zuten sexu-indarkeria arrazializatua ere badela eta, arrazakeriaren aurkako ikuspegiak gabe, politikek osatu gabe jarraitzen dutela: *“emakume mestizoek badute beirazko sabaia hausterik, baina geuri zementuzko sabaia jartzen digute”*. Horrez gain, elkarriketarako mahaietan *“gizonak bakarrik”* daudenean, ez diete emakumeen zein neskaten aurkako indarkeriei jaramonik egiten. Hori dela eta, garrantzitsua da Tximeleten Sareko emakumeek egiten duten deia, erakundeetako lan-agendetan ez ezik, gutako bakoitzaren bizitzan ere arrazakeriaren aurkako ikuspegia kontuan hartu dadin: *“arrazakeria bera indarkeria dela aitortzea da erronka handiena”*.

Emakume beltzek, indigenek eta nekazariak lan-arloko bereizkeriak, bazterketa politikoa eta gatazka-armatuaren esparruko berariazko indarkeriak pairatzen dituzte. Kontakizunetan, misioak egiaztatu egin ahal izan zuen etxeko eta erkidegoko ekonomia kontrolatzeko modu desberdinak daudela: familia-buruak diren emakumei egindako estortsioak, arrantzarako murrizketak eta LGBTIQ+ giza taldearen aurkako xaxaketak nagusi dira kontrol armatuak gurutzatzen dituen lurraldeetan. Pazifikoa bezalako lurraldeetan, hainbat erakunde indarkeriak gauzatzen dira: negozio txikiei eusten ahalegintzen diren emakume familia-buruei egindako estortsioa eta eguneroko bizitza mehatxupean daukaten lesbianen eta transen aurkako jazarpena, besteak beste. Gerrako testuinguruen erdi-erdian, emakumeek lekualdaketa, konfinamenduaren eta aukera ekonomikoen galeraren pisua hartu behar izan dute euren gain. Euren kontakizunetan, emakumeek misioari erakutsi ahal izan zioten nola baztertu dituzten erabakiak hartzeko guneetatik: *“oraindik ere, bakerako elkarriketa-mahaietan, gizonak dira nagusi”*. Beraz, eredu patriarkala berregiten da, eta, bertan, oso ohikoa da emakumeen isiltasuna.

Emakumeek indarkeria sistematikoari eta egiturazkoari aurre egiten badiete ere, duintasunez gainditu dute biktimizazio hori. Izan ere, gero eta indartsuagoak eta ahalbunduagoak dira, erresistentziako prozesuetako protagonistak dira, bizia, erkidegoak zein lurraldeak zaintzen dituzte eta, bertatik, arbasoen jakitateak nahiz jardura kulturalak berreskuratzen dituzte indarkeriari aurka egiteko estrategia moduan. Esate baterako, Buenaventurako emakumeen *berriketaldia*, konfiantzako zirkuluak eta arbasoen jakitate espiritual afrooinordekoen berreskurapena autobabeserako eta sendaketa kolektiborako estrategiak dira gaur egun. Jarduketako horiek oroimena zein espiritualtasuna uztartzen dituzte arbasotasunaren zein ekintza politikoaren bidez, sare sozialari eusten diote gerra bete-betean eta emakumeak subjektu politikoak nahiz bake-eratzailak direla aldarrikatzen dute. Arrazakeriaren aurkako agenda feministek entzun diezaietela eskatzen dute, ezinbesteko baldintza delako emakumeen ahotsa eta begirada kontuan hartzen dituen bake iraunkorra eratzeko.

Lankidetzaren esparruan, fondoene murrizketaren aurrean eta gatazkak jipoitutako lurraldeetako misioentzako arrisku handiagoei aurrean (esate baterako, bertan atxikitzea, ekipamenduak kentzea eta sartzen ez uztea), ahalegin handiagoa egin beharra dago, lurralde-agerpenari eusteko eta zabaltzeko, arrisku handiko testuinguruetan ere bai. Funtsezkoa da prozesu komunitarioetan laguntasun politiko eta solidarioa lehenestea, genero-ikuspegia eta arrazakeriaren aurkako ikuspegia kontuan hartuta, eta ahalmen biderkatzailea duten proiektuei lehentasuna ematea. Aldi berean, funtsezkoa da honako hauxe ardatz nagusi duten proposamenen aldeko apustua egitea: feminismoa, defendatzaileen babesa, ekonomia komunitario zein herritarretako ekoizpen-proiektuak eta bakearen eraketa. Esparru horretan, lehentasunezkoa da kooperatibismoan, klusterretan eta ekonomia sozial zein solidarioan oinarritutako alternatiba ekonomikoei babesa ematea, gertari ohiak berriro gizarteratzeko prozesua indartu dadin eta, proposamen komunitarioen bitartez, landa-garapena sustatu dadin. Modu berean, premiazkoa da lurraldeen eta naturaren defentsa bultzatzea honako arlo hauetako ekimenen bitartez: justizia klimatikoa, agroekologia, elikaduraren burujabetza eta erkidegoetan krisia sakontzen duten megaproiektu estraktiboetatik babesteko neurriak.

Unibertsitateek eta tokian tokiko sareek behin eta berriro diote premiazkoa dela agerpen estatal prestatua edukitzea, emakume eta gazteen lidergorako prestakuntza eskaintzeko. Horrez gain, ikuspegi etniko espirituala kontuan hartzen duten programak ere egon behar dira osasun mental eta psikosozialaren arloan. Horrelako ekimenek arbasoen jarduketak eta herri-jakituria aitortu, errespetatu eta sustatu behar dituzte, baliozkoak eta beharrezkoak direlako gatazka armatuak utzi dituen ondorio emozionalei arretea emateko orduan.

Ozen hitz egin beharra dago eremu diplomatikoetan eta eragin-guneetan, Bake Hitzarmena bete egin behar dela eskatzeko eta Kolonbian protesta soziala egiten dutenen eta lidergo komunitarioak dituztenen eskubideak bermatzeko.

Honako hauxe eskatzen zaio Kolonbiako Estatuari:

1. 2016ko Bake Hitzarmena oso-osorik betetzea, ikuspegi etnikoa eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
2. 2023ko T-546 Epaia ezartzea. Bertan, hain zuzen ere, defendatzaileentzako bermeen egungo egoera inkonstituzionala dela adierazi zen, eta bertan zehaztutako 18 neurriak benetan beteaz beharko lirateke, zigorgabetasun-maila handiak murrizteko. Ildo horretatik, gainera, ekintza irmoa ezarri beharko litzateke, lider sozialen hilketak prebenitzeko eta giza eskubideak nahiz ingurumen-eskubideak bete-betean erabiltzen direla bermatzeko, gutxieneko baldintza delako benetako bake iraunkorrerantz aurrera egiteko.
3. Era berean, babeserako gaur egungo eredua eraldatzea, banakako eskema erreaktiboak gainditzeko, prebentziorako sistema integralerantz aurrera egiteko, autobabeserako jarduketara komunitarioak egituratzeko eta lurraldeetako lidergoen jarraipena bermatzeko. Horretarako, gainera, prebentziorako mekanismoek igorritako alerta goiztiarrei behar besteko erantzuna ematea, arriskuan dauden erkidegoak benetan babesten dituzten eta jakinaren gainean jartzen dituzten ekintzen bidez.
4. Segurtasuna bermatzea eta sartzeko aukera ematea nazioarteko misioei nahiz gatazkapeko lurraldeetan lan egiten duten erakunde laguntzaileei.
5. Protesta sozialaren zapalkuntza ikertzea eta zehatzea. Batez ere, 2021eko eztanda sozialean gertatutakoa argitu beharra dago, orduan 6.000 eraso baino gehiago egon zirelako, 60 exekuzio eta begietako 120 lesio barne.
6. Elkarriketarako mahaietan eta erabakiak hartzeko prozesuetan, emakumeen eta herri etnikoen partaidetza loteslea ziurtatzea, indarkeria arrazializatuei eta genero-indarkeriei arreta ematen dien ikuspegi bereizgarria kontuan hartuta.
7. Herrialdeko departamentuetan eta leku kritikoenetan, inbertsio soziala lehenestea, honako hauxe sendotzeko: oinarritzko azpiegitura, ikuspegi bereizgarriaren segurtasuna, lidergo berrien prestakuntza eta ekoizpen-alternatiba jasangarrien bultzada.

Terminoen glosarioa

Alerta goiztiarra: Herriaren Defendatzaileak erkidegoen aurkako indarkeriaren berehalako arriskuen berri ematea.

Bizi-planak: erkidegoek euren lurraldeetan nola bizi eta garatu nahi duten zehazten duten proposamen komunitarioak.

Konfinamendua: eragile armatuek inposatutako murrizketa, erkidegoak euren lurraldetik irten ez daitezen.

Mahai humanitarioa: erkidegoen, erakundeen eta instituzioen arteko elkarriketarako eremua, babesa eta gutxieneko baldintza humanitarioak eskatzeko.

Erabateko bakea: zenbait eragile armaturekin negoziatzea eta gatazkaren egiturazko arrazoiei erantzuna ematea.

Babes kolektiborako planak: indarkeriaren aurrean zainketarako eta defentsarako hartutako neurri komunitarioak.

Bakerako Jurisdikzio Berezia (JEP): 2016an sortutako auzitegia, gatazka armatuko krimenak ikertzeko eta epaitzeko.

Positibo faltsuak: Indar Publikoko kideek gerrako baja moduan aurkeztutako zibilen hilketak.

Legez kontrako ekonomiak: finantzatzeko asmoz eragile armatuek erabilitako jarduerak; esaterako, narkotrafikoa, estortsioak edo legez kanpoko meatzaritza.

Berriketaldia: emakume afrooinordekoen arteko konfiantzarako eta laguntasunerako jarduna, elkarri laguntzeko, babesteko eta modu kolektiboan sendatzeko.

Zaintza indigenak: herri indigenek eta afrooinordekoek antolakuntza autonomorako dituzten sistemak, aginte kolektiboan oinarrituta lurraldea armarik gabe babesteko.

Indarkeria espiritual: erkidego indigenek dabilten kontzeptua, gerrak edo ingurumenaren suntsipenak haien harmonian eta mundu-ikuseran sorrarazten duen kaltea azaltzeko.

Aholkularitza juridikoa: erkidegoei eta lider sozialei doako lege-laguntza emateko unibertsitate-eremua.

Egungo egoera inkonstituzionala: Gorte Konstituzionalak egindako adierazpena, eskubideen urraketa ugari eta sistematikoak antzematen dituen eta estatuak horretarako premiazko neurriak ezarri behar dituen.

Jakitateen batzordeak edo eskolak: indarkeriako testuinguruetan lidergoa eta erresistentzia indartzeko asmoz prestakuntza eta hausnarketa komunitariorako sortutako eremu kolektiboak.



Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos